

**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**



**εaj
pnv**

AURKIBIDEA

01. XIV. LEGEGINTZALDIAREN ANALISIA (2019-2023)	3
02. PERTSONEN ALBOAN ETA HAIEN ONGIZATEARI BEGIRA. AUTOGOBERNU GEHIAGO, EUROPA GEHIAGO ETA 2030 AGENDA.....	5
03. AURRENAK ESKUBIDE ETA ASKATASUNETAN.....	7
04. ETIKA JARDUN PUBLIKOAN.....	12
05. ETORKIZUN EKONOMIKOA: EUROPAKO FUNTSAK ETA BIRBANAKETA ARDATZ DUEN FISKALITATE BIDEZKOA.....	14
06. KLIMA-ALDAKETAREN KONTRAKO BORROKA, ETA INGURUMEN- ETA ENERGIA-JASANGARRITASUNA	19
07. BERDINTASUNA	26
08. ENPLEGUA, ERRONKA BERRIAK.....	28
09. PENTSIO BIDEZKOAK ETA DUINAK	32
10. EUROPA: ERRONKAK ETA AUKERAK.....	35
11. INDUSTRIAREN ALDEKO APUSTUA, LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA, ETE-AK, AUTONOMOAK, SEKTORE EKONOMIKOAK, BERRIKUNTZA ETA NAZIOARTEKOTZEA	37
12. GIZARTE-POLITIKAK DESBERDINTASUNA MURRIZTEKO ETA ONGIZATE-ESTATUA BABESTEKO	45
13. IKASKUNTZA-EREDU BAT ETORKIZUNERAKO	48
14. GARRAIO-AZPIEGITURAK GARAPEN JASANGARRIA LORTZEKO	50



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

01. XIV. LEGEGINTZALDIAREN ANALISIA (2019-2023)

EAJk beti egin du herri-erakunde guztietan egotearen aldeko hautua, hantxe aldezten baitira gure autogobernua eta gure balioak. Ekintza ildo horretan, inoren mende egon gabe, EAJ da Euskadiren interesen ahotsa eta defentsa Madril aldean. Euskadi da gure erreferentzia.

Euskal Talde gisa dugun indarra baliatzearen poderioz, hamaikatxo aurrerapen eta baliabide ekarri ditugu gure herrira; ildo horretan, transferentziak negoziatzeaz eta inbertsioak erakartzeaz gainera, irmo defendatu ditugu gure berezitasuna eta eskubide historikoak. Gure botoak baliagarriak izan dira aurrerabidea eta ongizatea ardatz dituzten ekimenak onesteko. Euskadi defendatzen jarraituko dugu Madrilen. Eta, bide horretan, gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea planteatuko dugu, enplegua eta ongizatea sortzeko proposamen eraikitzaileak eta jasangarriak egingo ditugu, eragile aktibo izango gara, eta aurrerapenak aldarrikatuko ditugu gizarte-eskubideetan, horiek baitira gure lehentasuna eta gure nortasun-ikurra.

Joan den legealdia bereziki zaila izan da. Pedro Sánchezen inbestidurarekin hasi zen, gobernua eratzea lortu ez zuen XIII. Legealdiaren ondoko hauteskundeak eta gero. Alderdi Sozialistarekin hitz egin eta negoziatu ondoren, aldeko botoa eman genuen egonkortasuna lortzen laguntzeko; halaxe osatu zen PSOEren eta Podemosen arteko koalizio-gobernua, egoera hartan posible zen bakarra.

Legegintzaldi-hasiera zaila aurreikusten zen, Gorteetako indar politikoen zatiketa handia eta gehiengo baten inguruan interesak bateratzeko zailtasuna zirela eta. Ildo horretan, jabetu ginen legegintzaldiak gutxieneko izendatzaile komun bat izan behar zuela, inplikaturako talde guztien onespina lortuko zuena. Alabaina, auzi askotan eta askotan kontrako joera izan dute Gobernuak eta Gorteetako gobernukide batzuek.

Joan den legegintzaldian, ustekabeko bi gertakari izan dira nagusi, garrantzi eta eragin handikoak biak ala biak: COVID-19ak eragindako pandemia eta Errusiak Ukraina inbaditu izana.

Egoera korapilatsu horrek zaildu egin du jardun politikoa, eta galarazi egin du, orobat, beharrezko erreforma estrukturaleri patxadaz ekiteko prozesua, izan erreforma horiek ekonomikoak, izan errealitate nazionalak estatuan txertatzeari buruzkoak. Horri beste kontu bat ere gehitu behar zaio: estatuak bultzatutako legediak gehiegitan egin diola kalte autonomia-egiturari, eskumen-esparrua errespetatzen ez duten politikekin.

Halako egoeretan ere, EAJk leial eutsi dio politikagintzaren ideari, elkarrizketa eta adostasuna bilatzen baititu beti ordezkatzeko dituen herritarren interesak defendatzeko, eta, hori hala den heinean, lorpen handiak izan ditu. Alde horretatik, azpimarratzekoa da 2021-2026 aldirako Kupoaren Bosturteko Legea eguneratu eta Ekonomia Itunaren Legea aldatu izana, eta, lehen aldiz, zorpetzeko gaitasuna aitortu zaie foru-aldundiei; Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera transferitzea eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin koordinatzea lortu dugu; Donostiarako Loiolako kuarteletako lurrak eskuratu ditugu, haien garapena bultzatzeko eta etxebizitzaren arazoari aurre egiten laguntzeko; Ikus-entzunezkoen Legean EiT Bren eredu babestea lortu dugu; zerga eta tasa berriak hitzartzea erraztu dugu; lehenbizikoak izan ginen elektrizitatearen eta gasaren prezioa bereizteko eskatzen, ordainagiriak merkatzeko; pilota- eta surf-selektzioen aintzatespen ofiziala ahalbidetu dugu; inbertsio mardulak lortu ditugu trenbide-azpiegituretan, azpiegitura hidraulikoetan eta Euskal Autonomia Erkidegorako zein Nafarroako Foru Komunitaterako garrantzitsuak diren beste proiektu batzuetan; energiaren eta I+G+Baren alorreko inbertsioak ekarri ditugu, Europako Funtsen banaketari jarraipen berezia eginda, eta abar.

Eta, zalantzarik gabe, abangoardian jardun dugu giza eskubideak defendatzen eta estatuaren modernizazio handiagoa lortzeko bidean. Guk bakarrik proposatu dugu Sekretu Ofizialen Legea erreformatzea. Gertaerak argitzea eta Mozal Legea deiturikoa aldatzea defendatu dugu. Gure botoekin eta ekarpenekin lagundu dugu eskubide berriak planteatu dituzten ekimenak bultzatzen.

Azken batean, zintzo eutsi diogu hitzari, baita gure hauteskunde-programan azaldutakoari eta gure boto-emaileekiko konpromisoari ere. Eta ziur gaude lortu dugula euskal gizartearen gehiengoaren ahotsa Madrilen entzunaraztea.

Datorren legegintzaldirako panorama zalantzagarrria dela eta, beharrezkoa da zure ahotsa berriro Madrilen entzunaraztea. Elkarrizketarako eta akordiorako gaitasuna duen ahotsa. Ahots sendoa eta eraikitzailea.

Aurkezten dizugun programa honetan dago jasota gure proposamena. Ikusiko duzunez, pertsonak ditu protagonista gure eginahalak. Proposamen zehatzak eta errealak jasotzen ditu.

Madrilen egiten den itxurazko politika efektistaren aurrean, eta alde batera utzita hango hitz-jario hutsa, inefizientzia, populismoa, autoritarismoa, elkarrizketarako eta akordioak lortzeko ezintasuna, erakundeen eta ekonomiaren ezegonkortasuna, Euskadin badugu alternatibarik, hemen badugu benetan balio duen botorik: Eusko Alderdi Jeltzalearena.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

02. PERTSONEN ALBOAN ETA HAIEN ONGIZATEARI BEGIRA AUTOGOBERNU GEHIAGO, EUROPA GEHIAGO ETA 2030 AGENDA

EAJn argi dugu **autogobernu gehiago izateak ongizate handiagoa** esan nahi duela; baliabideak eta politikak hobeto kudeatzek mesede garbia egiten diola garapen jasangarriari, eta, inolako zalantzarik gabe, herritarren onerako dela.

Horren erakusgarri da Euskadin egoera hobe bizi dugula estatuko gainerako tokietan baino, gizarte- eta ekonomia-adierazle nagusien arabera, nahiz eta jakin badakigun oraindik ere badugula makina bat gauza hobetzeko eta hamaikatxo erronka global ditugula aurrez aurre.

Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 2030 Agendak adierazten digunez, jardun politikoko ardatz estrategikoen xedeak zera izan behar du, herritarrak kezkatzen dituzten erronka globalei heltzea. Eta erronka horien artean nabarmentzen dira, besteak beste, desberdintasunak murriztea, politika inklusiboak, ahulenak babestea, klima-aldaketaren aurkako borroka irmoa, edo enplegu gehiago eta hobe ekarriko duten politika ekonomiko eta industrialak. Eta, bide horretan guztian, erabat errespetatu behar dira giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak. Aurka izango gaitu, beraz, planteamendu horietan atzera egitea dakarren proiektu orok.

Ondotxo dakigu, halaber, Europako eta Espainiako politikek badutela eraginik gurean. Horregatik, **sozialki aurreratua, kohesionatua eta ekonomikoki lehiakorra den Europaren aldeko apustua egiten dugu, eta hor ahots propioa izan behar du Euskadik.**

Espainiako Estatuan, berriz, tinko jarraituko dugu defendatzen eta sustatzen kontratazioa, enpleguaren kalitatea eta ballabide publikoen erabilera hobetzen lagunduko duten lan-erregulazioak, haien mende baitaude, neurri handi batean, gure enpresak eta, beraz, euskal herritarrak. Eta **hitzarmen autonomikoen lehentasuna aldarrikatzen jarraituko dugu, bai eta lan-harremanen esparru propio baten alde egiten ere.**

Era berean, Gizarte Segurantzak zuzenean eragiten digu, eta ezinbestekotzat jotzen dugu etorkizuneko jasangarritasuna bermatzea, prestazio eta pentsio handiagoak bermatzeko gure herritarrei, eta, hala, beren beharrei aurre egin eta bizimodu duinari eutsi ahal izateko. Horretarako, **Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren transferentzia eskatzen jarraituko dugu**, indarrean dagoen Gernikako Estatutuak dioenari jarraikiz, hori baita kudeaketa egokia ziurtatzeko biderik onena.

Ongizate-estatua defendatzea eta areagotzea da EAJren nortasun-ezaugarri ukaezina. Horrenbestez, argi uzten dugu politika publikoekin dugun konpromisoa, eta, bereziki, hezkuntzarekin, osasunarekin eta gizarte-zerbitzuekin duguna, garapen eta kohesio sozialerako funtsezko tresna diren aldetik. Kohesio sozialik gabeko garapen ekonomikoa ez baita jasangarria, ezta desiragarria ere. **Oparotasun inklusiboa** defendatzen dugulako.

Politika publikoak efizientziaren poderioz hobetu ahal eta behar dira: batez ere aukera-berdintasuna bermatzeko, pertsona kalteberenak babesteko eta talde horiek inola ere ez diskriminatzeke. EAJ protagonista eta aitzindari izan da politika publiko solidarioak egiten eta aplikatzen, beste ezein alderdi politiko ez bezala. Egungo EAEko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eredu garbia da gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokaren diseinuan eta arrakastan, eta estatuan inspirazio-iturri gisa baliatu dute Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera eratzeko. EAEko erakundeek kudeatzen dituzte biak ala biak Euskadin. Euskadi lider egin dugu giza garapen jasangarrian, balioetan, gizarteratzean eta gizarte-kohesioan.

Oparotasun inklusiboa eta integratzailea defendatzen dugulako, ikuspegi hori bera helaraziko diegu estatuko politika publikoei.

EAJ konprometituta dago, orobat, berdintasunaren alorreko beste politika publiko batzuekin ere, **emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra lortzeko**, indarkeria matxista desagerrarazteko, soldata-arrakala eta bestelako diskriminazio-mota guztiak ezabatzeko, eta emakumeak kontuan hartzeko erabakiak hartzeko prozesuetan.

Azkenik, ondotxo dakigu inboluzio-arrisku handia dugula autonomia-erkidegoko arkitekturari dagokionez. EAJk konpromiso irmoa du Gernikako Estatutua, Ekonomia Ituna eta euskal nazioa konbentzimenduz eta erabakitasunez defendatzeko, eta, beraz, gure autogobernuaren inboluzio-arriskuaren aurrean, **eustorma gisa jardungo dugu eskubide historikoak defendatzen eta gure nazio-nortasunaren erasoen aurka**.

EAJk aurrerantzean ere hortzak erakutsiko dizkio egungo ikuspegi eta tentazio birzentralizatzaileari, Euskadiri eragin badiezaiokie. Ildo horretan, aipatzekoak dira Ekonomia Itunaren aurkako erasoak, ezkerrek arlo sozialean egindako proposamen zentralistak, edo, Gernikako Estatutuaren edukari eta itun autonomikoari muzin eginez, transferitzeke dauden eskumenak transferitzeko zailtasunak eta ezezkoak.

Era berean, EAJk **Nafarroako foru-eskumenak** garatzen jarraitzea defendatuko du, Geroa Bairekin koordinatuta, koalizio horren parte garen heinean.

Nazio aniztasuna aitortzeko malgutasunik eza salatzen jarraitu behar dugu, horixe baita bizikidetzari irtenbide iraunkorrak aurkitzeko giltza.

Indar politiko guztien artean eztabaida zintzo eta sakona egitea *desideratum* hutsa da gaur egun, espero daitekeen errealitate bat baino gehiago. Nolanahi ere, EAJk konponbide bila jarraituko du, eta, ildo horretan, **elkarrizketa, negoziazioa eta ituna bultzatzeko ahaleginean segituko du**.

Soluzioak bilatzeko eginahal horretan sartzen da, zalantzarik gabe, Euskadiko enklabeen egoera anakronikoa (**Trebiñu eta Villaverde Turtzioz**), eta, konponbideari ekiteko, onartu behar da herritarrek eskubidea dutela beren egoerari buruzko iritzia emateko eta, kasuak hala eskatzen badu, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan dagokion lurralde historikoan sartzeko, Gernikako Estatutuan jasotzen den bezala.

Estatutu-dinamismo handiko **nazioa gara**, barne-eraikuntzari oso lotuta azaltzen gara, eta hori errespetatzea, babestea eta aldeztea bultzatzen dugu. Eta eskatu ere eskatzen diogu estatuari.

Horregatik guztiagatik:

EAJk Euskadiren naziotasuna aitortzea defendatuko du, bai eta estatuarekin alde biko harremana izatea ere, subiranotasun partekatua egikaritzearen bidez. Autogobernu gehiago izateak ongizate handiagoa esan nahi baitu.

EAJk konpromisoa hartzen du Gernikako Estatutuaren eta Nafarroako Forua Hobetzeari buruzko legearen defentsa gogorra egingo duela, bai eta Ekonomia Itunarena eta Hitzarmenarena ere, haiek baitira, hurrenez hurren, EAEren eta Nafarroaren garapen ekonomiko sozial eta politikorako tresna. Adostutakoa betetzea baita bizikidetzaren oinarria.

EAJk oparotasun inklusiboa eta integratzailea defendatzen du. Gizarte- eta lurralde-kohesiorik gabeko garapen ekonomikoa ez baita jasangarria, ezta desiragarria ere.

EAJk ezinbestekotzat jotzen du eta erreklamatu egingo du, halaber, Euskadik Europar Batasuneko erabakiguneetan zuzenean parte hartzea. Gure interesak kudeatzen dituzten tokiraino iristen baitira gure mugak.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

03. AURRENAK ESKUBIDE ETA ASKATASUNETAN

EAJk tradizio luzea du giza eskubideen defentsan; eginkizun hori ez da inoiz behin betikoa, beti eskatzen baitu erne egotea.

Alderdi humanista da gurea, balio solidarioak defendatzen dituena, eta, batez ere eta beste ororen gainera, giza eskubideen oinarria aldeztu dugu: giza duintasuna. Beti eman izan dugu horren berri, eta nazioarteko zein parlamentuko hamaikatxo forotan adierazi dugu arlo horretan aurrera egiteko gure konpromisoa. Ildo horretan, askotariko ekimenak planteatu ditugu giza eskubideak urratzen dituzten egoeren aurrean, besteak beste, Ukrainako inbasioa, Mendebaldeko Sahara, Libia, Siria, Turkia, Ekuatore Ginea, Nikaragua

eta Venezuela, eta beste horrenbeste egin dugu, nola ez, errefuxiatuen krisietan eta Mediterraneoko eta Europako hegoaldeko mugako migrazio-tragedietan.

Euskadin, Espainiako Estatuan zein Europar Batasunean, gure esku dauden ekimen guztiak bultzatu ditugu arlo horretan aurrera egiteko.

Giza eskubideen eta duintasunaren errespetua ebazpen judizialen ondotik askatasunaz gabetuta daudenentzat ere bada; preso horien eskubideak ez baitira lausotzen espetxeko atarian. Zigor- eta espetxe-sistemaren humanizazio-mailaren arabera neur daiteke gizarte baten heldutasun demokratikoa.

Era berean, berreziketa- eta gizarteratze-printzipioak gaur egun baino indar handiagoz erabili beharko lirakeke etorkizuneko legedian eta espetxeetako praktikan, eta, horrenbestez, berriro aztertu beharko lirakeke bai indarrean dagoen zigor-areagotzea, bai espetxe-sistemaren eredu nagusiki sarritzailea.

Botere publikoak, gainera, behartuta daude genero ikuspegia politika eta ekintza guztietan modu transbertsalean txertatzera, guztia ere gizon-emakumeen egoera, baldintza, nahi eta beharrak kontuan har ditzaten; horretarako, helburu eta jarduera espezifikokoak hartuko dira, parekotasun-gabezia guztiak baztertze eta berdintasuna sustatzeko ekintza guztietan, maila guztietan eta plangintza-, betetze- eta ebaluazio-fase denetan. Beste behin ere, giza duintasunaren kontua da.

Indarkeria matxista, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun horren adierazpen nagusia, giza eskubideen urraketa garbia da, eta gizarte demokratiko batek ezin du onartu halakorik. Botere publikoak behartuta daude (Istanbulgo Hitzarmenari jarraikiz) emakumeen aurkako indarkeria prebenitzera, jazartzera eta desagerraraztera, indarkeria matxista mota guztietatik babestera, haiei laguntzera eta eragindako kalte bidegabea konpontzera.

Bestalde, egin gabe jarraitzen dute Justizia Administrazioa estatu deszentralizatu baten egiturara egokitu dadin behar diren erreformek.

EAJren aburuz hain garrantzi handikoa den gai honetan, konpromisoa hartzen dugu lan hauek egiteko:

Herritarren eskubideak errespetatzea. Gogotik kontra egitea herritarren banako eta taldeko eskubideen babesean atzerapausoak ekarri dituzten legeei. Hain zuzen ere, Herritarren Segurtasuna Babesteko Lege Organikoaz ari gara (Mozal Legea izenez ezagutzen duguna). EAJrena izan zen aurreko legegaldian hura aldatzeko ekimena, eta ezin izan da amaitu —hainbat urtetan lan egin eta berrogeita hamar bilera baino gehiago egin ondoren—, EH Bilduk eta ERCK jarrera intrantsigientea izan baitute —guztia nahi zuten, edo ezer ez—.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. EAJk ahaleginak eta bi egiten jarraituko du Emakumeen aurkako bereizkeria forma guztiak ezabatzeari buruzko Tratatu (CEDAW) eta aukerako protokoloa benetan eta modu eraginkorrean aplikatzeko, bai eta politika publiko guztietan genero-ikuspegia txertatzeko eta emakumeen eta gizonen parekotasun eta berdintasuna benetakoa eta eraginkorra lortzeko ere.

Indarkeria matxista. Indarkeria matxistari hortzak erakustea; bermatzea bideratzen direla behar adina baliabide hura prebenitzeko, eta bermatzea, orobat, biktimek —baita ukituriko adingabeek ere— modu eraginkorrean lortzen dituztela babesa, arreta eta justizia. Guztia ere segurtasuna berreskuratu dezaten beren bizitza pertsonalean, baita erabateko giza duintasuna ere.

Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunean sinatutako neurri guztiak **betetzea.**

Zigor Kodearen erreforma, adierazpen-askatasuna mugatzen duten hainbat zigor-motari dagokionez. Adierazpen-askatasuna oinarritzko eta funtsezko eskubidea da, eta hura gabe ez dago demokraziarik eta adierazpen publiko askerik —nola eta, askatasun horren aitzakian, ez den argi eta garbi bultzatzen delitu bat egitera, indarkeria areagotzera edo halakoren bat gertatzeko arrisku nabarmena sortzen duen egoeraren batera—. Hori dela eta, gizarte askeek berezko dute eskubide hori defendatzea eta babestea. Hala ere, Zigor Kodeak baditu delitu jakin batzuk —Koroaren, botereen, erakundeen eta estatuaren sinboloen aurkakoak—, galarazi egiten dutenak iritziak eta ideiak adieraztea, zehapenak jasotzeko beldurrez. Ez adierazten dena modu kaltegabea adierazten denean bakarrik, baizik eta esaten denak estatuko instituzioak edo bertako herritarrek harritzen, kezkatzen edo gogaitzen dituen.

Arazoi horregatik, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak behin baino gehiagotan kondenatu du Espainiako Estatuak, eta Europako zenbait erakundeek Zigor Kodea modu integralean aldatzeko eskatu diote, adierazpen-askatasunaren printzipioaren bermeak indartzeko eta Espainiako auzitegiek erabakiak hartzeko egiten duten lana errazteko, guztia ere Giza Eskubideen eta Askatasun Publikoen Europako Hitzarmenaren 10. artikuluari orpoz orpo jarraikiz.

Hizkuntza ofizialak errespetatzea. Pertsonak beren hizkuntza propioa erabiltzeko eskubidea, koofizialtasuna zuzen aplikatzea eta bete-beteko erabilera aldeztuko ditugu estatuko administrazioaren mendeko esparru guztietan.

Euskarari dagokionez, gure herriaren nortasun-ezaugarriak garrantzitsuena izateaz gainera, berezko hizkuntza eta ofiziala da Euskadin eta Nafarroan. Horrek behartu egiten ditu erakunde eta botere publiko guztiak ofiziala den lurralde horietan bizi diren pertsonen hizkuntza-eskubideak zaintzera eta haren erabilera bermatzera eta sustatzera.

Horregatik, eta Estatu Administrazio Orokorri dagokionez, EAJk konpromiso hauek hartzen ditu:

- ✓ Eskatuko dugu euskarak presente egon behar duela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren mende dauden espazio fisiko eta birtual guztietan, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko.
- ✓ Eskatuko dugu bete egin behar direla Ikus-entzunezkoen Lege Orokorrean euskararen presentziari dagokionez ezarritako betebeharrak, telebista-plataforma publiko zein pribatuetan.
- ✓ Mantendu eta pixkana areagotu egin behar dela Zinemaren Legean gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialetako zinema-ekoizpenetarako ezarritako aurrekontu-zuzkidura.

- ✓ Eskatuko dugu NEXT funtsen barruan Hizkuntzaren Ekonomia Berrira bideratutako zenbatekoek (Ekonomia Berreskuratzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoari loturik) behar bezala hartu behar dutela kontuan euskara, eta lagundu egin behar diotela, orobat, euskararen digitalizazioari.

Euskal selekzioak. Euskadik kirolean duen nazioarteko presentzia benetakoa izan dadin beharrezko urrats guztiak emateko eskatzen jarraituko dugu.

Justizia Administrazioa euskal errealitate autonomikora egokitzea. EAJk defendatzen du antolakuntza judizialak Euskadin amaitu behar duela, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, eta han amaitu behar direla prozesu-istantziak, baita kasazio errekurtsua edo jurisdikzioaren ordena guztietan dagokion azken instantzia ere. Salbuespen bakarra izango litzateke estatu osoan: Auzitegi Gorenaren jurisdikzioa, alegia. Halaber, Euskal Justizia Kontseiluari legokioke Euskadin Botere Judiziala egikaritzea, eta Ertzaintzak izan beharko luke beti euskal esparruko auzi-polizia.

Adimen artifiziala. Giza eskubideetan oinarritutako erregulazioa. Adimen artifiziala izango da protagonista gure bizitzan inpaktu handia duen iraultza batean, baita trantsizio digital itzulezin batean murgilduta dagoen ekonomian ere. Iraultza horrek onura nabarmenak ekarriko ditu hainbat arlotan, baina, era berean, badakartza ahal den neurrian ebaluatu eta neutralizatu beharreko arriskuak ere.

EAJ, ildo horretan, adimen artifiziala erregulatzearen alde agertu da, Europako erakundeetan hausnarketa zabala egitearen bidez. Izan ere, oreka gorde behar da: batetik, ezin dugu galdu laugarren iraultza industrialaren trena, eta, bestetik, teknologia horien erabilera etikoa eta arduratsua bermatu behar da. Horretarako, beharrezkoa da giza eskubideekiko errespetuan oinarritutako erregulazio bat, zeinak pertsonak izango baititu helburu.

Giza Eskubideen Plana. Giza Eskubideen Plan bat egitea sustatzea eta exijitzea —legealdi guztietan egin dugun bezala—, atzerri-politikan ez ezik barne-politikan ere neurri zehatzak dituen; plan horrek helburu argiak eta ekintza-estrategiak izango ditu, bai eta epe jakinak ere, emaitzak lortzen laguntzeko. Era berean, barnean hartuko ditu jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismo gardenak, gizarteak eta Diputatuen Kongresuak kontrolatzeko eta inplementatzeko aukera izan dezaten.

Erabat aplikatzea Memoria Historikoaren Legea eta Memoria Demokratikoaren Legea. Bermatu behar da Gerra Zibilean eta frankismo garaian nazioarteko zuzenbide humanitarioko krimenak jasan dituzten biktimek modu eraginkorrean bala ditzaketela egia, memoria, justizia eta erreparazioa izateko eskubidea.

EAJk konpromiso garbia eta zalantzarik gabea du: Gerra Zibileko eta frankismoko biktimek aukera izan behar dute egiarako, justiziarako eta erreparaziorako eskubidea bete-betean egikaritzeko. Ederki erakutsi dugu konpromiso hori euskal erakundeak kudeatzerakoan, bai eta Euskal Taldeak Madrilen eginiko lanean ere, legegintzaldi honetan onetsitako Memoria Demokratikoaren Legea izapidetzeko ahaleginean. Hurrengo legealdian irmo defendatuko dugu lege horren garapen eta exekuzio osoa, baita Memoria Historikoaren Legea ere.

Horregatik guztiagatik, salatu egiten dugu giza eskubideen eremuan aplikatzekoa den nazioarteko zuzenbidearen eta Memoria Demokratikoaren Legea indarrean jarri ondoren ere Espainiako auzitegiek alor horretan egiten duten interpretazioaren arteko kontraesana. Ildo horretan, apelatu egiten ditugu legezkotasun-printzipioa, preskripzioaren figura eta 1977ko Amnistiaren Legea, krimen anker horiek epaitzeko eta horien gaineko erantzukizunak argitzeko aukera guztiak agortze aldera.

Argi eta garbi baieztatzen dugu egin daitekeela beste irakurketa bat, nazioarteko zuzenbidearekin eta biktimen justizia-eskubidearekin bat datorrena, eta exijitu ere exijitu daitekeela. Ildo horretan, defendatu egingo ditugu aurrerantzean ere beharrezko ekimenak eta lege-aldaketak, Gerra Zibileko eta frankismoko biktimek justiziarako sarbidea eta, horrekin batera, egia judiziala eta horiei dagozkien erantzukizun penal eta zibilak eskatu ahal izan ditzaten.

Salbuespenezko legediak. Nazioarteko terrorismoa ezin da izan aitzakia gure eskubide eta askatasunetan atzera egiteko, haietan oinarritzen baitira gure gizarteak. Ezinbestekoa da legedi egokia edukitzea fenomeno horri proportzionaltasun egokiarekin aurre egiteko, eskubide eta askatasun horiei errespetu osoa erakutsiz eta aplikazio hedakorrek galaraziz.

Tratu txarren eta torturen prebentzioa, jazarpena eta erreparazioa. Nazioarteko erakunde publiko eta pribatuetako errelatoreek eta herriaren defendatzaileek gomendatutako neurriak hartzea, atxilotzeko leku eta esparruetan ez dadin izan tratu txarrak eta torturak egiteko aukerarik. Era berean, sakon ikertzea aurkeztzen diren salaketak eta iraganean egin zirenak; hartara, posible izan behar da biktimak aitortzea eta erreparatzea, preskripzioa gorabehera, baldin eta lege-hausterik gertatzen bada.

Jurisdikzio unibertsala. Botere Judizialaren Lege Organikoaren erreforma bultzatzea, agintariak nazioarteko zuzenbide humanitarioko krimenaren susmagarria den oro ikertu eta auzipetu ahal dezaten, kontuan hartu gabe non gertatu den delitua edo zein den akusatuaren edo biktimaren nazionalitatea.

Biziarteko espetxe zigorrik ez. EAJk erabat arbuatzen du espetxealdi iraunkor berriusgarria, biziarteko espetxe zigorra *de facto* ezartzea baitakar.

Heriotza-zigorraren aurkako borroka. Giza eskubideak defendatzea heriotza-zigorra daukaten herrialdeetan, eta defentsa juridiko egokia ziurtatzea beste estatu batzuetan Espainiako pasaportearen duten eta heriotza-zigorra ezarri dieten herritarrei.

Migrazioari eta asiloari buruzko proposamenak:

- **Europako immigrazio- eta asilo-politika onartzea.** Immigrazioari heltzeak –izan fenomeno horretarako arrazoiak ekonomikoak, izan asilo eta babes subsidiarioa eskatzea– Europar Batasunean tratatzea eskatzen du, auziaren nolakotasunak, dimentsioa eta globalizazioa kontuan hartuta. Ildo horretan, immigrazioak jatorri-herrialdeetan ez ezik pasabide- eta xede-herrialdeetan ere eskatzen du tratamendua, eta kontuan hartu behar dira elkartasunaren, erantzukizunaren eta bidezko banaketaren printzipioak, guztia ere pertsonen duintasuna eta giza eskubideak errespetatuz.

- **Bidaidetik gabeko adingabe migratzaileak eta asilo-eskatzaileak ekitatez banatzeko neurriak hartzea.** Autonomia-erkidego eta udalerrri jakin batzuetan asiloa eta babes subsidiarioa eskatzera iristen diren migratzaileak gehiegi pilatzea saihesteko, eta, era berean, harrera-baldintza duinak bermatzeko, banaketa-politika egokia eta orekatua bultzatuko dugu estatu osoan.

- **«Beroan» itzultzeko kasuetan, nazioarteko itun humanitarioak eta giza eskubideen alorrekoak betetzen direla bermatzea.** Babes- eta asilo-eskatzaileei eta gainerako migratzaileei dagokienez, arlo humanitarioko eta giza eskubideen nazioarteko itunak betetzen direla bermatzeko, atzeritarrei buruzko legediaren erreforma planteatuko dugu berriro, nazioarteko itun horiek betetzeko trazabilitatea ahalbidetuko duten prozedurak ezartzeko –mugan atzera bidaltzea, alegia–. Halaxe egin dugu aurreko legealdian ere, kontuan hartuta, gainera, EH Bilduk eta ERCK Mozal Legearen aldaketari buruz izaniko jarrera maximalistak eragotzi egin zuela aldaketa.

- **Migratzaileen eskubideak bermatzea.** Gogotik lan egingo dugu benetan eta modu eraginkorrean errespetatu daitezkeen pertsona horien giza eskubideak eta larrialdiko laguntza humanitaria eman dakien, betiere arreta berezia ipinita kalteberatasun-egoera berezian dauden migratzaileei. Zehazki, gertutik jarraituko ditugu hegoaldeko mugako gertakariak, 2022ko ekainaren 24an Melillan izandako gertaera tragikoak berriro errepika ez daitezen; izan ere, gogor salatu genituen gertakari horiek, eta hainbat ekimen eragin zituzten gure talde parlamentarioaren aldetik.

Era berean, Atzerritarrak Barneratzeko Zentroetan askatasun-gabetzeaz bestelako aukerak aplikatzen direla zainduko dugu; era berean, zentro horien erregelamendua aldatzearen alde egingo dugu, migratzaileen eskubideak hobeto bermatzeko, bai eta ikerketa sakonak eta zorrotzak egitearen alde ere, tratu txarren edo giza eskubideen bestelako urraketak salatzen direnean.

- **Migrazio-politikak EAeri transferitzea** eta euskal harrera-eredua defendatzea.

Pertsonen salerosketaren aurkako eta horiek babesteko lege integrala.

Gerrako eta gizateriaren aurkako krimenen preskribaezintasunari buruzko Konbentzioari lotutako nazioarteko tresnak berrestea.

Giza eskubideekin konpromisoa hartutako atzerri politika, bertan behera utziko ez dituen beste ustezko interes batzuen mesedetan. Geopolitikaren interesek ezin dute utzi zalantzan mendebaldeko Europaren oinarri den ildo humanista, demokratiko eta soziala hirugarren herrialdeen esparruan jokatzekoan.

Lankidetzarekiko konpromiso irmoa. Aurrekontu publikoek eutsi egin behar diote nazioarteko lankidetzarako partiden pisuari, eta justizia, aukera berdintasuna, haurren defentsa, genero-berdintasuna, ingurumen-jasangarritasuna eta giza eskubideen defentsa mundu guztian bermatuko duen garapen globaleko eredu bat bultzatu behar dute.

Horregatik, bat gatoz Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak, Parisko Akordioak eta garapenerako alde anitzeko agendaren funtsezko alderdiei egindako ekarpenak definitutako lankidetzaren nazioarteko esparru berriarekin.

EAJ konprometiturik dago euskal berezitasunak kontuan hartzen dituen lankidetzaren eredu bat garatzen jarraitzeko, tutoretzarik eta mendekotasunik gabe. Hala egin genuen aurreko legegandian, babestu egin baikenuen Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Legea, eta beste horrenbeste egingo dugu hura osteko erregelamendu-garapenean eta egikaritzean ere.

Era berean, lege horretan ezarritako aginduak betearaztea eta betetzea bultzatuko dugu, autonomia-erkidegoek Europar Batasunaren lankidetzaren delegatuko programe-tan parte har dezaten, ahaztu gabe dirulaguntzei buruzko estatuko oinarriko araudia egokitu egin behar dela lankidetzaren funtzionamendura eta izaerara.

Saharar herriaren autodeterminazio-eskubidearen alde.

EAJk salatu eta arbuiatu egiten du Espainiako Gobernuaren erabaki-aldaketa unilaterala eta historikoa, nazioarteko zuzenbidearen kontrakoa dela iritzita, aitortu egin baitu Marokok Saharako lurraldearen gainean duen subiranotasuna; izan ere, Espainiako Gobernuak onartu egin du Marokoren proposamen autonomikoa, eta, ondorioz, bertan behera utzi du nazioarteko erakundeek Saharako herriaren autodeterminazioaren alde ezarritako jarrera.

EAJk, beraz, berretsi egiten du saharar herriarekiko konpromiso politikoa, autodeterminazio-eskubidea aitortzeko eta egikaritzeko, NBEk horri buruz emandako ebazpenen testuinguruan, eta berretsi egiten du, orobat, Aljeriako Tinduf probintziako saharar kanpamenduetako errefuxiatuei dagokienez duen konpromiso humanitarioa ere.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

04. ETIKA JARDUN PUBLIKOAN

EAJk eskakizun politiko eta demokratiko gorena defendatzen du. Eskakizun horri jarraikiz, gure jardun politiko eta instituzionalaren gidari izango dira gardentasuna eta kontuak ematea, herritarren parte-hartzea, erantzukizuna, demokrazia liberalaren printzipioeki-ko errespetua eta halako printzipioak, halaxe lortuko baitugu gure ingurune politiko eta kulturalako gizarte garatuenean maila bera lortzea.

Horretaz gainera, halabeharrezkoa da printzipio horiek garatzea, zeinen oinarria baita herritarrek aukera izatea erakundeen jarduna modu eraginkorrean kontrolatzeko, eta, ildo horretan, funtsezko elementua izan behar du demokrazia liberalek oro har —eta bereziki Espainiakoak— bizi duten konfiantza-krisiari erantzuteko. Funtsean, helburu hauei erantzuna ematea da gakoa:

- ✓ Gehiago entzutea, bai pertsona guztiei, bai kolektibo guztiei. Hitz egitea. Hurbiltasun fisikoaren balioa ulertzea.
- ✓ Modu ulergarrian eta hurbilekoan informatzea. Datuak informazio bilakatzea.
- ✓ Elkarrekin sortzea. Herritarrak politika publikoen garapenaren partaide aktibo bihurtzea.
- ✓ Ahalegin argia egitea politikak ebaluatzeko eta kontuak emateko. Gure herritarrek eskubidea dute jakiteko non inbertitzen dituzten beren zergak eta zein den administrazioek —kasu honetan, administrazio zentralak eta haren sektore publikoak— garatzen dituzten zerbitzu eta programa publikoen emaitza.

Printzipio eta helburu horiei jarraituz, ildo hauetan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu:

Gardentasuna eta parte-hartzea aktiboki defendatzea herritarren eskubide moduan. Gero eta gehiago eskatzen dira gardentasuna eta parte-hartzea, eta, horren ondorioz, EAJk irizten dio herritarren eskubidetzat hartu behar direla; beraz, obligazio bat dira administrazio publikoentzat eta gizarte-erakundeentzat —eta, besteak beste, alderdi politikoentzat—. Ildo horretan, gardentasuna eta etika oinarritzeko printzipioa izan dira eta izango dira EAJk zuzendutako erakundeetako gobernu-ekin-tzetan. Baina, horretaz gainera, exijentzia nagusietako bat ere izango dira, oposizioan dihardugun erakundeetan. Alde horretatik, ez dugu etsiko eskakizun hauetan: argitu daitezela, besteak beste, Mikel Zabaltzaren heriotzaren kausa eta inguruabarrak; Gasteizen 1976ko martxoaren 3an izandako gertaera tragikoak, 150 langile baino gehiago zauritu eta 5 hildako eragin zituztenak, bai eta beste 2 hildako ere elkartasun-manifestazioen aurkako errepresioan; Aldana tabernan (Alonsotegi) 1980ko urtarrilaren 20an izandako bonba-atakatua, lau pertsona hil eta hamar zauritu zituen; edo Polizia Armatuak 1978ko sanferminetan izandako esku-hartzea, 150 zauritu baino gehiago eragin zituen eta ikasle bat kopetan tiro emanda hil zuena.

Sekretu Ofizialen Lege berria, egungo iluntasuna amaituko duena. Izan ere, botere publikoen jardunean exijitu daitekeen gardentasuna galarazteaz gainera, modu ulertezinean zailtzen du historialarien lana ere. Eta are larriago: mugatu egiten du giza eskubideen gehiegikeriak edo urraketak prebenitzeko, murrizteko edo ikertzeko informazioa eskuratzeko bidea. Hortaz, Sekretu Ofizialen Lege berri bat proposatuko dugu, aurreko legealdian aurkeztu genuena ezin izan baitzen bideratu, PPK, PSOE eta Ciudadanosen eragindako blokeo parlamentarioagatik. Defendatzen dugun Sekretu Ofizialen Lege berria bat etorriko da gure kultura- eta segurtasun-eremuko herrialdeetan indarrean dauden irizpideekin; dokumentuen sailkapen ez-generikoen printzipioetan oinarritu ordez —orain gertatzen den moduan—, legez eta aurrez ezarritako

irizpideetan oinarrituko da; gorde nahi den informazioaren eduki objektiboaren arabera neurtuko da; eta epe tasatuen arabera ezarriko da —eta, epe horiek igaro ondoren, dokumentuak automatikoki desailkatuko ditu—.

Kontrol-sistema berriak proposatzea eta sistema horiek egokiro funtzionatzen dutela ziurtatzea. Alboratu egin behar dira oraindik ere geratzen diren «administrazio zaharraren» eremu ilunak, nahitaez. Lanean jarraituko dugu horiek «argitara ateratzeko», baita espazio horietako herritarren kontrola bermatuko duten sistemak ezartzeko ere. Bereziki, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetan, Armadan eta estatutik kanpoko zerbitzuetan, ia ezinezkoa baita horietan edozein informazio eskuratzea.

Inteligentzia Zentro Nazionalaren legeak eguneratzea. Inteligentzia Zentro Nazionalaren jardueren kontrol politiko eta judizialean sakontzeko, bereziki oinarritzko eskubideei eragiten dieten esku-hartzei dagokionez, kontuan izanik bermerik handienak eta zuzenbide-estatu ahalik eta gehien errespetatzea eskatzen dutela, beharrezkoa da haren arau-esparrua eguneratzea, dagoeneko igaro baitira bi hamarkada onetsi zenetik.

Beharizan hori, gainera, are larriago bilakatu da, Espainiako Gobernuko kideei —presidenteari barne— egindako espioitzen gainean aurreko legealdian jakin genituen gertakarien larritasunaren ondorioz. Era berean, ez da ahaztu behar Pegasus programa, dozenaka ordezkari politikori eragiten diena —Israelgo NSO enpresa zibernetikoak garatutako *spyware* oso inbaditzaile bat da Pegasus—. Aurreko legealdian ere aurkeztu genuen hori, eta PSOE, PPK eta VOXek, besteak beste, atzera bota zuten lege-proposamena. EAJk berriro aurkeztuko du datorren legegintzaldian.

Ustelkeriaren aurrean jarrera tinkoa izatea. Erabat konbentziturik gaude erakunde politikoek berek gauzatu behar dutela «ustelkeriaren aurreko tolerantzia zero politika», eta mezu argiak eman behar dituztela beren artean ager daitezkeen ustelkeria-kasuen aurrean.

Aforamenduak eta erregearen ukiezintasuna kentzea. Aforamenduak ezabatzeari dagokionez, eta gure inguruko herrialde gehienekin bat etorritik, uste dugu erabat ezabatu beharko lirakeela, bai kargu publikoei dagokionez, bai gainerako zerbitzari publikoei dagokionez. Aurreko legealdian bezala, berriro ere proposatuko dugu erregearen ukiezintasun ekonomikoa ezabatzea egintza ez-instituzionalei dagokionez.

Paradis fiskalekiko konpromiso etikoan sakontzea. Berriazko konpromisoa dugu eragiketarik ez egiteko paradisu fiskaltzat jotako herrialdeekin edo lurraldeekin.

Lobbyak arautzea, eta, horretarako, neurri eraginkorrak ezartzea ahalik eta gardenenak izan daitezkeen, eta arreta berezia ipintzea kargu publikoekin eta ordezkari politikoekin dituzten interakzioen eta harremanen gardentasunari.

Elkarrizketaren, negoziazioaren eta, kasuak hala eskatzen duenean, **itunaren** bidez jardutea politikagintzan.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

05. ETORKIZUN EKONOMIKOA: EUROPAKO FUNTSAK ETA BIRBANAKETA ARDATZ DUEN FISKALITATE BIDEZKOA

Legegintzaldi honetan zehar, krisiak pilatu egin dira, eta bi shock izan ditugu, bata bestearen jarraian: COVID-19aren pandemia eta Errusiak Ukraina inbaditu izana. Bi gertaera horiek inpaktu handia izan dute ekonomian.

Shock horien ondorioz, lehenik, eskari-krisi laburra sortu zen (pandemiaren hasierako konfinamendu-garaian), eta, ondoren, bi eskaintza-krisi izan ziren, bata bestearen jarraian (COVID-19ak jarduerak hibernatzea eragin zuen, eta Ukrainako gerrak lehengaien krisia sortu zuen). Egoera horiek mundu mailako ekonomiaren zenbait oinarri kaltetu dituzte. Hainbat analistek globalizazioaren amaiera datorrela diote. Izan ere, krisi horiek enpresen deslokalizazioan, *just in time* metodoan, hornidura-kateen konplexutasunean, energia-mendekotasunean eta, are, Europar Batasuneko eredu ekonomikoan eragin handia izan dute.

Hortaz, legegintzaldi honetan zehar, bereziki azken bi urteotan, neurriak hartu dira krisi horien ondorioei aurre egiteko, oraindik bukatu gabe zirela. Horren ondorioz, elikagaien eskaintza globala murrizteaz gain, aurrekaririk gabeko energia-krisia ere izan da. Energia-krisi horren ondorio nagusia adierazle oso altuko inflazioa da, eta 2023. urteko lehen hilabeteetara arte ez da arintzen hasi.

Testuinguru horretan, inflazioaren gorakada mugatzeko, Europako Banku Zentralak diru-politika aldatu zuen 2022ko uztailetik aurrera: interes-tasak gogor handitu zituen, inflazio-tentsioak murrizteko. Horren ondorioz, ordea, enpresentzako eta familientzako kredituak eta maileguak garestitu egin dira, eta kreditu-eskaria murriztu egin da (Euriborrari erreparatzea besterik ez dago; izugarri igo da, eta horrek kuotak garestitu egin ditu, familien hipoteka aldagarri gehienak kalkulatzeko funtsezko indizea baita).

Aurkako egoera hori gorabehera, Espainiako ekonomiak eta Europa osokoak analistek iragarritakoa baino hobeto eutsi diote, faktore askok bilakaera ona izan dutelako: hartutako neurriek eragindako energiaren merkatzea, Europako gas-erreserba handiak, klima leuna, Asiako eskari txikia, familien aurrezki metatua, hornidura-katearen hobekuntza, lan-merkatuaren portaera ona, energia-arloko murrizketak eta gobernuen laguntzak.

Dena den, prezioen bilakaera (elikagaien prezioen igoera orokor eta iraunkorra), EBZren interes-tasen igoera-politikarekin eta kontsumo-kredituen eta hipoteken garestitzean dituen ondorioekin batera, nabarmena da kontsumitzaileentzat, batez ere familia zaurgarrientzat. Tasen igoera hori ez da amaitu oraindik, eta inpaktu larriagoa izango du familien kontuetan eta ekonomian urteko azken hiruhilekoan; izan ere, tasen igoerak horiek igo eta urte eta erdi geroago nabaritzen dira.

Espainiako ekonomiaren portaerari mesede egin diote, halaber, Europak bi mekanismoren bidez emandako erantzunak eta hartutako politikak:

- ✓ 2020tik aurrera, politika publiko hedakorrek hedatzea ahalbidetu duten arau fiskalak bertan behera utzi dira, pertsona eta enpresei estaldura emateko jarduerak COVID-19agatik hibernatuta egon zen garaian, eta, ondoren, jardueraren beherakadagatik eta Ukraina Errusiak inbaditzearen ondoriozko tentsio inflazionistengatik.

- ✓ Next funtsak, hazkunde ekonomikoa sustatzeko, inbertsioa handitzeko eta gure ekonomiak eta gizarteak eraldatzeko, bi erronka nagusirekin: eraldaketa digitala eta eraldaketa ekologikoa, Europa erresilienteago eta kohesionatuago baten diseinuan aurrera egiteko. Funts horiek beharrezkoak dira bi erronka handiri aurre egiteko: desberdintasun soziala eta klima-aldaketa. Funts horiek, estatuaren kasuan, Berreskuratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan bihurtu dira, baina ahuleziak azaleratu dituzte diseinuari, inplementazioari eta gauzatzeari dagokienez.

Hala ere, ekonomiaren portaera egokiaz gain, Ukrainako gerraren bilakaerak ziurgabetasuna sortzen du, interes-tasa handienek eragin handiagoa dute ekonomiaren finantzaketarekiko mendekotasun handiena duten sektoreetan, Next Generation funtsei lotutako proiektuek inbertsioan eta jardueran duten inpaktuak zalantzak sortzen ditu edo arraste-eragin txikiagoa du, eta Bruselak iragarri du zerga-arauetara itzuliko garela, era malguagoan izanda ere, herrialde bakoitzeko egoerari doituta; gertakari horiek kezka sortzen dute, oraindik ere, hazkundearen garapenari buruz.

Era berean, Espainiako ekonomiak oraindik ere zenbait desoreka ditu (defizita, zorra eta produktibitate txikia...). Komeni da desoreka horiei aurre egitea eta horiek zuzentzea, epe luzerako hazkundearen jasangarritasuna arriskuan jartzen baitute. Beraz, komenigarria litzateke, alde batetik, epe ertainera zerga-baterakuntzarako estrategia bat planteatzea, hazkundera ito gabe, etorkizuneko kanpo-shocken aurrean ekonomiak duen ahultasuna murrizteko edo, beste hitz batzuetan esanda, oreka fiskal errealistagoa eta jasangarriagoa bilatzea, ongizate-estatu finantzaketarako diru-sarrera nahikoekin mantentzea bermatuko duen erreforma baten bidez, eta, era berean, inbertsiorako, ekintzailtzarako eta hazkunderako pizgarriak sortuko dituen. Eta, bestetik, hezkuntzan, lan-politikan eta berrikuntzan sakoneko erreformak egin beharko lirateke, besteak beste, produktibitatean eragiten dutenak eta ekonomia batek balio handiagoa eta ongizate-gehikuntza sortzea ahalbidetzen dutenak.

Egoera horretan, politika publikoek garrantzi berezia dute efizienteak eta efikazak izan nahi badute, eta are gehiago inflazioa eta interes-tasak ohi baino handiagoak diren testuinguruan.

Horregatik, makro datuez gain, politika publikoak diseinatzerakoan ez dugu ahaztu behar herritarren eta ekonomia-sarearen zati baten pertzepzioa pesimista dela; izan ere, ekonomiaren makro datuen bilakaera positiboa izan arren, ez dute mikro datuetan, beren egunerokoan, islatuta ikusten. Horregatik, beharrezkoa da laguntza fokalizatuak mantentzea, familietara eta behar duen ehun ekonomikora egiaz irits daitezen.

Horregatik guztiagatik, datorren legegintzaldian aurre egin beharreko proposamenak, betiere Euskadiren ikuspuntutik, zerga-arloko eta ekonomia- eta finantza-arloko konfiantza-, egonkortasun- eta segurtasun-printzipioak bermatzera zuzenduko dira alde batetik, funtsezko elementuak baitira enpresa-proiektuak, jarduera ekonomikoa eta inbertsioa garatzen laguntzeko. Bestetik, proposamenak testuinguru ekonomiko berri horretatik eratorritako erronka berriei heltzeko izango dira, azken legegintzaldietan, Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren ildotik, Euskadin egiten ari garen giza garapen jasangarriaren aldeko apustuan sakonduz. Euskadi 2030 Agendarekin indartu ditugu, politika ekonomikoen hedapenean segurtasuna, ziurtasuna eta konfiantza emateko, politika horiek herritarren bizitza islatzen eta hobetzen badute, eta, era berean, gizarte berdinzaleago, berdeago, inklusiboago eta, beraz, kohesionatuago baterantz bideratzeko.

Testuinguru orokor horretan, EAJk honako konpromiso hauek hartzen ditu:

NEXT FUNTSAK

-**Malgutasuna indartzea eta burokrazia murriztea** ekoizpen-sarerako eta administrazioetarako deialdietan sartzeko, neurri hauek hartuta: erantzukizunpeko adierazpena orokortzea, sektore publikoko informazio-iturrien arteko elkarreragingarritasuna, bermeak murriztea eta aurrerakinak handitzea. Ildo horretan, funtsezkoa da kontro-

lerako eta egiaztapenerako urrats «gehigarriak» ezabatzea. Espainiak urrats horiek gehitu zizkion Europak onartutako tresnari, eta Batasunak eskatutako baldintzetatik haratago doaz.

-Funtsak gauzatzeko formula berriak abian jar daitezzen bultzatzea, hala nola eskualdeetako ETPB edo PERTEak edo lurralde-izaerako proiektu traktoreak, kontratu publikoen deialdiek eta lizitazioek gaur egun duten gehiegizko atomizazioa murrizteko.

-Estatuko PERTEetan sar daitezkeen eskualdeetako trakzio-proiektuetarako **kogestio-mekanismo baten aktibazioa bultzatzea,** Autonomia Erkidegoei hainbat PERTEtan proiektu zehatzak eta berehala gauzatzeko proiektuak aurkeztea eskaintzea eta proiektu horiek zuzenean finantzatzea, betiere ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

-Lankidetzaren publiko-pribatuko tresna berriak bultzatzea deialdiak diseinatzeko eta funtsak gauzatzeko, kapilaritate handiena bermatuz, Autonomia Erkidegoen Finantza Institutuen bitartez.

-Malgutasuna bultzatzea, Autonomia Erkidegoetara transferitutako zenbatekoak MRR funtsek erabil ditzaketen eremuetara/osagaietara egokitzeko. Atzerapen handiak gertatzen ari dira hedapenean, Autonomia Erkidegoek ez baitute parte hartzen Planaren hasierako diseinuan.

-Funtsen banaketan Autonomia Erkidego bakoitzaren erakunde-arkitektura kontuan har dadin bultzatzea, errealitate horri ez erantzuteagatik sortzen ari diren gabeziak berehala zuzentzeko.

-Gardentasun-mekanismoak bultzatzea, mugariak eta helburuak betetzean izandako garapenari eta benetako ekonomiara funtsak iristeari buruzko informazio zehatza eta eguneratua izateko.

-Zerga-arloko lankidetzaren gure eskumenak eta Ekonomia Itunaren berezitasuna errespetatuz. EBko herrialdeen eta ELGAren zerga-egiturak gutxi aldatu dira XX. mendetik, eta, beraz, gure ustez, beharrezkoa litzateke zerga-sistemak ekonomian dagoeneko gertatu diren aldaketa sakonetara egokitzea, batez ere digitalizaziora eta ingurumen-fiskalitateara. Horretarako, XXI. mendeko errealitateara egokitutako zerga-sistemetara jo behar da, eta sistema horiek progresibotasunean sakonduko dute, kalitatezko zerbitzu publikoei eusteko diru-sarrera nahikoak bermatuko dituzte, eta, aldi berean, inbertsioa, ekintzailtza eta hazkunde ekonomiko jasangarria bultzatuko dituzte. Progresibitatearen, ekitatearen eta justizia sozialaren printzipioetan oinarritutako sistema, beraz.

Zerga-sistemaren erreformei buruz estatuan sortzen diren eztabaida eta erabaki guztietan lankidetzaren aritzearen aldekoa da EAJ, betiere gure Gobernu fiskalarekiko begirune zorrotzaren oinarritzko printzipiotik abiatuta. Gure Gobernuak ogasun propioak ditu, eta horietako bakoitzak arauak ezartzeko ahalmena du.

Estatuak zerga-egitura egokitu behar badu, zerga-sistema progresiboa, ekitatiboa eta bidezkoa lortzeko, ezinbestekoa da **EAEko eta Nafarroako Lurralde Historikoak gai izatea beren zerga-sistemak osatzen dituzten figura gehienak modulatzeko.** Ildo horretan, eta Ekonomia Itunaren indarreko idazketaren ondorioz indarrean dagoen eskumen-esparrua gaintzeari kalterik egin gabe, ezinbestekoa izango litzateke estatuak, hala badagokio, hartu beharreko figura berriak Ekonomia Itunean eta, ondorioz, Lurralde Historikoen zerga-sisteman sartzea.

EAJren ustez, beharrezkoa da zerga-sistemari egonkortasuna eta segurtasun juridikoa ematea, epe motzean hartzen diren etengabeko aldaketak edo adabakiak saihesteko; izan ere, egoeraren arabera, ziurgabetasuna eta inbertsioaren balizko atzerapena besterik ez dute eragiten.

Energiaren sektoreari eta bankuei aldi baterako eta ohiz kanpo ezarritako ondare-prestazio ez-tributarioei dagokienez, EAJk uste du prestazio horiek, mantendu nahi izanez gero, zerga-erreforma batean sartu eta zerga gisa izapidetu beharko lirakeela, eta ez Euskadi eta Nafarroako gobernuekin hitzartzea eragozten duten onda-

re-prestazioen figura gisa, eta egiten dutena Ekonomia Itunari egindako bypass moduko bat dela, gure eskumena txikituz. Hala badagokio, euskal erakundeen arautzeko eskumena erreklamatuko dugu.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, zenbait azterlanek erakusten dute familia-unitateen errenta gordinen eta negozio batzuen garapenean desberdintasuna gehien areagotzen duen zerga dela, eta hori iraunkorra dela denboran, eta ez dela hain zuzen ere COVIDaren pandemiaren ondoriozkoa. Horregatik, ondasunen eta zerbitzuen zerrenda berrikustea proposatuko dugu, hala nola tasa orokorra, murriztua eta supermurriztua, arazo horri heltzeko eta ekitaterik eza saihesteko. Halaber, euskal erakundeek zerga hori arautzeko eskumena izan dezaten erreklamatuko dugu.

ARAU FISKALAK

EAJk defendatuko du Europan 2024. Urtetik aurrera aplikatu beharreko doikuntza fiskala bateragarria izatea trantsizio ekologiko eta digitalerako inbertsio-premiekin, epe ertainean estatuak aurre egin behar dieten erronkei ekiteko eta hazkunde ekonomikoan eragin potentziala izateko, gastuaren zenbaketatik kanpo utzita edo finantzaketari dagokionez malgutasuna ahalbidetuz.

Bide bereizleak helaraztea, indibidualizatuak, estatuaren eskumen-eskema deszentralizatura. EAJk defendatuko du Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legea aldatzea, Autonomia Erkidegoetako eta udaletako finantza publikoen abiapuntuko egoera kontuan hartuta, bere eskumeneko politika publikoetan inbertitzeko eta gastatzeko gaitasuna ziurta dadin aplikatzeko, eta bide bereizle eta indibidualizatuak ahalbidetzeko. Bide horien definizioa alde biko negoziazioetatik eratorriko da, eta horretarako estatuaren eta, bereziki, EAEko eta NFEko Euskal Itunak eta Nafarroako Hitzarmenak sortutako arkitektura instituzionalari erreparatuko zaio.

Zerga-baterakuntzaren prozesuan aurrera egitea, aurrekontu- eta zerga-politikaren epe luzerako ikuspegiarekin, hazkundera ito gabe, baina etorkizuneko kanpo-shocken aurrean ekonomiak duen ahultasuna murrizteko.

Iruzurraren eta zerga-ihesaren aurkako borroka, kargen banaketan ekitate eta justizia sozial handiagoa lortzeko eta estatuko Ogasunen lankidetzaren elementuak errazteko. Ezkutuko ekonomiaren tasei aurre egitea eta horiek desagerraraztea.

Kontratu publikoetan prezioak berrikusteko mekanismo juridiko efikaz eta egonkorra sustatzea. Mekanismoak kontuan hartuko ditu bai soldata-kostuen ezohiko berrikuspina, bai lehengaien eta energiaren ezohiko berrikuspina, bai kontratuen prezioaren salbuespenezko berrikuspinen muga handitzea, gutxienez ustekabeko egoerarako, hala nola Ukrainako gerra.

Ahantura onkologikorako eskubidea arautzea sustatzea, minbizia gainditu duten pertsonen bermatzeko finantza-erakundeek eta aseguru-etxeek ez dutela beren historia medikoa izango mailegu, aseguru edo kreditu bat kontratatzerakoan. Funtsezko eskubidea da aukera-berdintasunerako eta gizarte-inklusiorako.

3/2013 Legea, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala (MLBN) sortzeko aldatzea sustatzea, Europar Batasunak lehiaren arloan ematen dituen zuzentarauetara egokitzeko.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren aldaketa bultzatzea, Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketan lankidetzaren sistema berriak sartzeko eta, hartara, finantza-inklusioren errazteko. Kreditu-erakundeak ez ezik, finantza-erakundeak ere barne hartzea.

Finantza Bezeroa Defendatzeko Administrazio Agintaritzaren sortzearen berriko ekitea, herritarrei eta enpresa txiki eta ertainei prozedura judicial bizkorreko bitarteko alternatibo bat emateko, finantza-operadoreekiko auzietan edo harremanetan dauden desadostasunak konpontzeko, Europar Batasunaren 2013/11 Zuzentarauaren lehen xedapen gehigarriarekin bat etorritik; eta bide judiciala arintzeko, halako desadostasunen ebazpena bertatik aterata.

Oinarritzako ordainketa-kontuen aldaketa bultzatzea, zaugarritasun-egoeran edo finantza-bazterketaren arriskuan daudenen mesedetan, horien irismena zabaltzeko eta malgutzeko. Halaber, finantza-inklusioren buruzko Europako araudiaren esparruan, irabazi-asmorik gabeko erakundeetako oinarritzako banku-kontuaren antzeko baldintzak modu mugatuan aplikatzeko aukera proposatuko da, hala nola kultura-elkarteak, profesionalak ez diren kirol-klubak eta jabeen erkidegoak, betiere merkataritza- edo enpresa-jarduerarik ez badute.

Herri erakundearen koordinazioa eskumen esparrua errespetatuz. Herri erakundeak koordinatzea, xahutzeak eta gainjartzeak saihestea eta eraginkortasuna eta efizientzia bilatzea administrazio publiko guztien artean ekin behar dioten gastu publikoaren beharrezko erreformaren jomuga izan behar dute.

Ekintzailatza eta barne ekintzailatza babestea. EAJk ekintzaileen kultura sustatzeari eta aholkularitza eta laguntza finantzarioa osorik eta era malguan emateari aldeko apustua egiten du, baita barne ekintzailatza alderako apustua ere, hau da, enpresa barruan produktu, zerbitzu eta proiektu berriak garatzeko gaitasunaren aldeko apustua. Ekintzailatza bultzatzea funtsezko helburua da beren etorkizun profesionala diseinatze eta aldi berean beren komunitatean lan-aukerak sortze aldera hausnarketa, sormena eta berrikuntza garatzeko gai diren emakumeak eta gizonak atxikitze eta erakartzeko behar diren baldintzak ahalbidetzeko.

BESTE NEURRI BATZUK

Proposamen eta laguntza fokalizatuak bultzatzea, hala badagokio, familiengana eta behar duen ehun ekonomikora modu errealean irits daitezkeen; bereziki, tasen gorakadaren eta inflazio handiaren testuinguruak irauten duen bitartean, familia ahulenei errenta transferentziak eginez.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

06. KLIMA-ALDAKETAREN KONTRAKO BORROKA, ETA INGURUMEN- ETA ENERGIA-JASANGARRITASUNA

Klima-aldaketa gure erronka handienetako bat da, baina, aldi berean, aukera bikaina da ekonomiaren eta hazkunde ekonomikoaren ereduak eraldatzeko. Izan ere, jardueraren arlo guztietan izango ditu ondorioak. Halaber, enpresa eta industrietarako aukera ere bada; izan ere, klima-aldaketari aurre egiteko, bereziki, energia- eta ekoizpen-ereduak eta kontsumo-ohiturak eraldatu behar dira.

Klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren politikak palanka handia dira energia-jasangarritasunaren eta ingurumen-babesaren alorrean aurrera egiteko, eta, beraz, funtsezko tresna izan behar dute karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioari ekiteko eta Europako Itun Berdearen testuinguruan kokatzeko. Itun hori hazkunde-es-
trategia berria da Europar Batasunarentzat, berotegi-efektuko gasen emisio garbiak gutxienez % 55 murrizteko hemendik 2030era. Hala, ezinbestekoa da gai hauei buruzko erabakiak hartzea:

industria, nekazaritza eta abeltzaintzako eredia, hiri-konfigurazioa, hondakinen kudeaketa, uraren eta energiaren kontsumoa, ondasunak eta zerbitzuak erosteko egune-
roko erabakiak, hornidura ziurtatzea, efizientzia eta energia-aurrezpena sustatzea, mugikortasuna, energia-sareen interkonexioa eta energia berrien eta berriztagarrien garapena.

EAJk etorkizuneko gizartearen hautu irmoa egin du. Garapena, aurrerapena, berrikuntza, lehiakortasuna eta hazkuntza ingurumenaren babes, berreskuratze eta bizibe-
rritzearekin oreka koherente eta arduratsuan gertatu behar den gizarte baten hautua. Klima aldaketaren erronka handiari aurre egin behar zaio gizarte ereduaren eta
ongizate estatuaren hautu irmo eta arduratsu baten bitartez, ingurumenaren babesaren eta garapen sozioekonomikoaren arteko oreka etengabe gertatzen dela.

Nolanahi ere, isurien murrizketa saihestezinerako bilakaerak nahitaez kontuan hartu behar ditu lurraldeen errealitateak eta premia ekonomiko-industrialak, eta trantsizioa
ordenatua, aurreikuslea eta koordinatua izan dadin saiatu behar da.

Beste alde batetik, eta «Neguko paketea» dela eta, Europako Batzordeak 2016an aurkeztutako «Europar guztientzako energia garbia», herritarrek erabakietan eta energia
transakzioetan parte hartzea bultzatu behar da. Eskaria gehienbat energia berriztagarrien bidez asetzerantz trantsizio energetikoa egiteak kontsumoak progresiboki
elektifikatzea eskatzen du eta gero eta modu deszentralizatuagoan, tamaina txikiagoarekin eta kontsumo puntuetatik hurbilago sortzea. Lehenetsuna izango du, beraz,
arau eskema berriak bultzatzea, argindar kontsumoak eta eskaintzak eranstea sustatzeko, eta energia biltegitzea ere sustatzeko.

Azkenik, ezin dugu ahaztu energiaren prezioak oso altuak izan direla, lehendabizi energia-eskariak gora egin zuelako ekonomia COVID-19aren eraginaz berreskuratzen ari
zela, eta, jarraian, Ukrainako gerraren ondorioz.

Energia-krisiak erakutsi digu, alde batetik, sistema elektrikoak malgutasun handiagoa behar duela erregai fosilak ordezkatzeko, eta, bestetik, elektrizitatearen prezioak
sentikortasun handia duela erregai fosilen prezioekiko. Egoera horrek agerian utzi du energia berriztagarrien hedapena bizkortzeko betebeharra dugula, energia eskura-
garria eta garbia izan dadin, eta, gainera, berrindustrializaziorako eta gizarte-kohesiorako palanka gisa jardun dezan.

Energia-sistema azken 100 urteetako eraldaketa handienaren aurrean dago. Eraldaketa horrek energia-hornidura bermatu behar du, 2050ean klimatikoki neutroa izan behar du eta ekonomiaren lehiakortasunari eutsi behar dio. Horregatik, energia eta teknologia berrien mix batean oinarritutako eredu energetiko berri bat behar dugu, trantsizio jasangarria ahalbidetzeko eta trilema bati erantzuteko: ingurumena, horniduraren segurtasuna eta prezio eskuragarria herritarrentzat zein enpresentzat.

Eraldaketa hori, gainera, ziurgabetasun ekonomiko global handiagoko eta nazioarteko zatiketako testuinguruarekin bat dator. Testuinguru horretan, oraindik ere beharrezkoa da energia-krisiaren ondorioak minimizatzea, mekanismoak edo neurriak sartzea antzeko inguruabarren aurrean erreakzionatu ahal izateko, ekonomiaren sektore guztien deskarbonizazioan aurrera egitea, energia-kostuen lehiakortasuna areagotuz, kontsumitzaile ahulenak eta sektore kritikoak babestuz, energia-hornidura bermatuz eta gizartearen ongizatea hobetuz, honako hauen bidez:

- ✓ Aurrezteko eta energia-eraginkortasunerako neurriak sustatzeko jarduera aktiboagoa.
- ✓ Energia berriztagarrien ezarpena bizkortzea, izapidetze-prozesuak arinduz.
- ✓ Elektrifikazio-maila handiago baterantz aurrera egitea, teknologia elektriko berriak sartuz sektore kontsumitzaile guztietan.
- ✓ Industria-garapena, industria-prozesuetan eta elektrifikazio zaileko eta/edo deskarbonizazio oso zaileko sektoreetan, hala nola itsas garraioan eta aireko garraioan, deskarbonizazioa bizkortzea ahalbidetuko duten irtenbide berritzaileak emateko.

Azaldutakoagatik, EAJk jarduera-ardatz hauetan lan egiteko konpromisoa hartzen du:

HERRITARRENTZAKO EKIMENAK

Kontsumitzaile zaurgarriak babestea

Kontsumitzaile energetiko zaurgarriak eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenak babesteko egungo sistemai eustea, bai bonu sozial elektrikoa, bai justizia energetikoko bonu elektrikoa eta bai bono sozial termikoa, eta bidezko trantsizioko neurri berriak sartzea etxe zaurgarrienen deskarbonizazio-prozesuaren barruan.

Energia-komunitateak eta kontsumo-agregatzaileak

Herritarrek energia berriztagarrien sorreran parte har dezaten sustatzea, eta, horretarako, energia-komunitateak sortzea, kontsumotik hurbil ekoiztea eta kontsumo-agregazioa bultzatzea, merkatu elektrikoan parte har dezaten laguntzeko.

Energia-komunitateen eta autokontsumo partekatuen proiektuak izapidetzeko denborak murriztea, administrazioen eta sare elektrikoaren jabeen erantzun-epe laburragoak arautzea eta, ahal den neurrian, erantzukizunpeko adierazpenaren erabilera bultzatzea. Energia-komunitateen proiektuek lehenetsia izango dute sarean sartzeko, potentzia handiagoko proiektuen aurrean.

Kontsumoaren elektrifikazioari laguntza ematea

Berotegi-efektuko gasen zero igorpenerako energia-trantsizioaren prozesuan, funtsezkoa da bi kontsumo oso atomizaturen elektrifikazio-prozesuari ekitea: mugikortasunari eta klimatizazioari. Bi jarduketa horiek herritarren inbertsio handiak behar dituzte, diru-laguntzen programen eta zerga-neurri osagarrien bidez lagundu behar baitira.

PVPC tarifa

Jaurilaritzak Kontsumitzaile Txikiarentzako Borondatezko Prezioa (PVPC) kalkulatzeko metodologia aldatu du. Epe ertain eta luzerako prezio-saski bat barne hartzen du, prezioan gorabehera handiak saihesteko. EAJk aurreko legegintzalditik babestu izan du. Orain, indarrean sartu zenetik bi urteko epean izan duen eraginari buruzko azterlan bat egitea proposatuko dugu.

PVPC tarifa merkaturatzaile guztiei irekitzea.

ENPRESA KONTSUMITZAILEENTZAKO EKIMENAK

Arau-esparru egonkorra

Arau-esparru egonkorra sustatzea, energia berriztagarrien arloan inbertsioak egiteko ziurtasuna ekarriko duena, seinale argiak emanez.

PPA: Enpresetan elektrizitatea erostea

Industrirentzat eta enpresentzat, oro har, epe ertain zein luzera energia elektrikoa kontratatzekeko sistemak arauz garatzea. PPA formulak baliatuko lirateke, Estatuaren bermearekin, kontsumitzaile elektointentsiboentzako berme-funtsaz haratago. Hala, kontratu estandarizatuekin negoziazio-plataformak gaitzeko aukera egongo litzateke, prezioa gardenagoa izan dadin.

Kontsumitzaile elektointentsiboen estatutua

Kontsumitzaile elektointentsiboa izateko irizpideak berrikusi eta hobetzea. Izan ere, gaur egun enpresa asko kalifikazio horretatik kanpo geratzen dira, ez dutelako irizpide horietako bat edo beste betetzen. Hona hemen Estatutuan hobetu beharreko zenbait puntu: P6 tarifa-aldian gutxienerako kontsumoa izateko eskakizuna malgutzeari, enpresa talde bereko enpresak baterako kontsumo elektrikoaren atalasetik gora kontsideratzea eta epe jakin batera kontsumo elektrikoa kontratatzekeko obligazioa betetzen laguntzea, berriztagarrien enkanteetan parte hartzekeo aukera eskainiz.

CO2-ren zeharkako kostuen konpentsazioa

CO2-ren zeharkako kostuak konpentsatzeko aurrekontu-zuzkidura handitzea, isurpen-eskubideen kosteek gora egiten baitute etengabe. Era berean, aurrekontuaren zenbatekoak diruz lagun daitezkeen kostuen % 100 estaltzen duela bermatu behar da.

Kogenerazio industrialia

Kogenerazio industrialia martxan jartzeko baldintza ekonomikoak hobetzea, industria deskarbonizatzeko funtsezko sektorea baita. Azken 12 hilabeteotan, % 40 jaitsi da kogenerazio bidezko ekoizpena. Kogenerazioa berraktibatu ahal izateko, oso garrantzitsua da eragiketaren ziozko ordainsaria kalkulatzeko metodologiak kostuak benetan islatzea eta denboraz eta ondo onestea.

Enpresa industrialen lehiakortasuna babestea

Europa mailan mekanismo arautzaileak ezarri eta indartzea, EBko estatu batentzat estrategikoak diren sektoreen parte diren eta nazioartean lehian aritzen diren industriak energiaren kostu handiagatik deslokalizatzea ekiditeko: Europaren mugetan karbonoa doitzeko araudia onesteko babesa ematea, diruz lagundutako gehieneko energia-prezioen behin-behineko esparrua ezartzea etorkizunean prezio altuak egon daitezkeelakoan, eta Estatuak energia-krisi larriei berehala aurre egiteko ematen dituen diru-laguntzen araudia behin betiko ezartzea.

Kontsumitzaile elektrikoaren agregatzaile independentea

Agregatzailearen irudia araz eta ahal bezain pronto garatzea, sektore elektrikoaren eragile eraginkorra izanik. Gai hau oso interesgarria da enpresa industrialentzat, ETEak sistema elektrikoaren malgutasun zerbitzuetan modu aktiboagoan parte hartzeko aukera izan dezaten (eskaeraren kudeaketa, doikuntza-zerbitzuak, etab.).

Sarera sartzeko eta konektatzeko puntuak eskaintzea

Irizpideak eta epeak berrantolatze mekanismo arautzaileak txertatzea, beharrezkoak baitira energia berriztagarriak ekoizteko parkeak egiteko proiektuen sarbide- eta konexio-puntuak ematea saihesteko. Parke horiek distantzia luzera kokatuta egongo liriteke eta honela, horien kokapena arrazionalizatuko da, kontsumo-nukleoetik hurbil egotea sustatuko da eta beharrezkoa ez den balizko ingurumen-eragina saihestuko da.

Sarbide-ahalmena malgutu behar da lehiaketarako erreserbatutako korapiloetan, hurbileko proiektuen garapena ez oztopatzeko.

Energia elektrikoa gordetzeko instalazioen sarerako sarbideak arautzea

Energia elektrikoa gordetzea ezinbestekoa izango da eskaintza eta eskaera elektrikoa egokitzeko, energia berriztagarrien presentzia handia duten sistema honetan. Energia elektrikoa gordetzeko orduan, horretan parte hartzeko eta konpentsazio ekonomikoa emateko aukera arautu behar dira, baita sarerako sarbidea ere, horniduraren partetik zein sorkuntzaren partetik. Hala, sareak ahalik eta hoberen erabiliko dira, hibridazioak errazago egingo dira eta ahalmena partekatuko da, banakako sarbideen aurrean.

Sarbide-tarifen egutegia aldatzea edo berrikustea

Egutegia goi-tentsioko kontsumitzaileara egokitzea, prezioaren arabera eskaera energia fotovoltaiko asko dagoen eguneko momentuetan egongo bailitzateke.

P7 tartea, gaueko txandekin bat datorren sarbide-tarifa

Arretaz jarraitu behar da gaueko kontsumoaren bilakaera, momentu honetan eguneko kargaren kurba gero eta lauagoa delako. Bestalde, gauerako sarbide-tarifa lehiakorragoa eskaintzeko aukera aztertu behar da, laneko txanden ordutegira egokitzeko (gaueko txanda, fabriken kasuan). Horrela, industriaren partetik eskaera handiagoa egongo da eta sareen erabilera hobetuko da. Egunez energia fotovoltaikoa sortzeak spot merkatuko prezio baxuagoak badakartza, eguneko momentu horretan gora egingo du eskaera elektrikoak.

Sorkuntza banatua

Komunitate energetikoen araudia bultzatzea, autokontsumorako instalazioen korapilo-erreserbak ezartzeko, eta hala, isurpenaren esportaziorako ahalmena bultzatzeko eta energiaren sorkuntza banatuari mesede egiteko.

GARAPEN TEKNOLOGIKO ETA INDUSTRIALA SUSTATZEKO EKIMENAK

Hidrogeno berdearen sektorea garatzea

Gaur egun haizea eta eguzkia baliabide oparoak direnez, energia elektrikoa sortzeko ahalmena eta inbertitzeko interes handia aprobetxatu behar dira instalazio berriztagarriak garatzeko. Instalazio horiek egungo beharrian elektrikoek zein etorkizunean beste kontsumo mota batzuen elektrifikazioak sortutako beharrianei erantzuteko modukoak izan behar dira eta hidrogeno berdea ekoizteko ere aprobetxatu behar dira. Hidrogeno berdeak iraunkortasun-baldintzetan estaliko du elektrifikatu ezin den kontsumoa. Hidrogenoa kanpotik ekartzea saihestu beharra dago eta horretarako, beharrezkoa izango da ekoizpen eta kontsumo proiektuak babestea, teknologia propioa garatu ahal izateko.

Erregulazio eta fiskalitate egokiak izanez gero, inbertsio gehiago egongo dira bektore energetiko honetan, zalantzarik gabe.

Petrolioaren eratorriak diren erregaien egungo kontsumo-nitxo batzuk, hala nola abiazioa edo itsas garraioa, ezingo dira elektrifikatu eta ezingo da horien kontsumoa H₂-rekin asebate. Karbonorik gabeko isurpenak izango dituzten erregai sintetikoak diseinatu beharko dira. Laguntza-programa espezifikoek bidez ere bultzatu beharko dira horien ekoizpena eta garapen teknologikoa.

Off-shore energia eolikoaren sektore industrialia sustatzea

Energia eolikia off-shore sortzeko instalazioen garapen teknologikoak bide luzea du aurretik. Zentzu horretan, teknologia flotagarrien sektorean kokatzea funtsezkoa izango da.

Energia-enkanteak egin behar dira instalazioen artean, off-shore bakarrik eta urte bakoitzeko gehieneko potentzia instalatua aintzat hartuta, garapen hori bultzatzeko eta inbertsio-arriskua murrizteko.

Hirietako energia elektrikoa banatzeko sareak eta instalazioak hobetzea

Etxebizitza-sektorean kontsumoa elektrifikatzeko (bero-ponpadun aire-giroetzea) eta mugikortasunaren arloan ere hala egiteko (ibilgailu elektrikoa), hirietako banaketa-sareak eguneratu eta modernizatu beharko dira. Horrekin batera, eraikinetako barne-sareak modernizatzeko laguntza eman beharko da (bizilagunen erkidegoentzako laguntzak).

Ekonomia zirkularra bultzatzea

Ekonomia linealetik ekonomia zirkularra pasatu behar da ekoizpen- eta kontsumo-sistema, galerak ahal beste murriztuz. Horretarako, baliabideak modu efizientean erabili behar dira, prozesuetan bestelako lehengaiak erabili behar dira eta bigarren mailako lehengaien eta produktu zirkularren erabilera berriak zein merkatu eraginkorrak definitu behar dira. Zehazki, funtsezko sektoreentzako eraginkortasun neurriak hartu behar dira (nekazaritzako elikagaien industriarako, ontzi eta bilgarrien industriarako, ehungintzarako, fabrikazio elektriko eta elektronikorako, etab.).

Bioekonomia

Bioekonomiaren aldeko apustu garbia egin behar da, nekazaritza, basozaintza, itsasoa, hondakin organikoak eta horien balio-kateak integratuz, klima-aldaketaren aurka egiteko eta EBk lehengaien eta energien aldetik duen mendekotasuna murrizteko tresna potenteenak baitira.

Nekazaritza eta basozaintzako bioekonomia garatzea

Nekazaritza eta basozaintzako sistema iraunkor eta berritzailea garatzea, nekazaritza eta basozaintzako hondakinen eta lehengaien aprobetxamendua bermatuko duena, produktu berritzaileak garatzeko.

MERKATU ELEKTRIKORAKO EKIMENAK

Merkatuari likidotasuna emateko neurriak bultzatzea, merkaturatzaile independenteen partetik eperako kontratazioa sustatzeko, txikizkako merkatuaren kontzentrazio maila gorantz doan eta eperako merkatuen likidotasuna beherantz doan honetan. Horrela, gainera, sorkuntza propiorik ez duten edo zailago egiten zaien eragile txikien ahalmena areagotzen da eta elektrizitatea prezio onean eskaintzen zaie enpresa independenteei, salmenta lehiakorra izan dezaten eta kontsumitzaileei prezio merkeagoak eskaintzeko aukera izan dezaten.

Europar Batasunaren baitan merkaturak esku hartzeko neurriak bateratzea, etorkizunean beharrezkoak izan daitezkeelakoan.

URAREN ARLOKO EKIMENAK - UREZTATZEA

Uraren erabilera arrazionalizatzea bultzatuko dugu, uraren kalitateari buruzko Europako Zuzentarauaren ildotik, klima aldaketaren efektuen ondorioz ur baliabideak gutxituta dauden giro honetan. Sare hidrografikoa oinarritzko azpiegitura gisa hartzea eta ez bakarrik arlo hidraulikoan, ingurumen-arloan ere bai.

Uraren erabilera iraunkorra sustatzen jarraituko dugu **industrian, nekazaritzan, zerbitzuetan eta etxebizitzetan** eta ur-hornidura bermatzeko beharrezkoak diren obrak sustatuko ditugu. Nolanahi ere, horniduraren segurtasuna eta oro har hornikuntza bera kudeaketa publikoaren esku egon behar direla uste dugu.

MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO EKIMENAK

Garraioaren sektorea berotegi-efektuko gasen igorle nagusia da. Herritarrei isurpen gutxiago dituzten ibilgailuak eskuratzeko erraztasunak ematea proposatzen du EAJk.

- ✓ Moves eta MITMA Moves planen baitan ibilgailu elektrikoak erosteko ageri diren **diru-laguntzak birdiseinatzea**.
- ✓ MOVES Planaren baitan ibilgailu elektrikoak erosteko diru-laguntzetarako **baliabideak areagotzea**.
- ✓ Horrez gain, **ibilgailuak aldatzeko aukera sustatzea** eta isurpenak murrizteko obligazioa azkartzea, renove plan baten bidez, hamabost urte edo gehiago dituzten ibilgailu arruntak isurpen gutxiko ibilgailu berriekin ordezkatzeko.
- ✓ **Karga-puntuei buruzko informazioa emateko plataforma** bat sortzea.
- ✓ **Karga-puntu gutxiago sustatzea, baina potentzia handiagoarekin**. Errepidean karga ultra-azkarra egiteko azpiegiturak sustatu behar dira, batez ere.
- ✓ **Administrazio-izapideak sinplifikatzen** jarraitzea.

Fiskalitate energetiko berdearen arloan lankidetzan aritzea, gure eskumenak eta Ekonomi Itunaren bakantasuna errespetatuz.

Fiskalitate energetiko berdearen inguruan sortutako eztabaidetan parte hartzea. Eztabaida horretan, ingurumenarekiko kalteak izan beharko lirateke hizpide eta deskarbonizatzen lagundu beharko luke, kutsatzen duenak ordaindu behar duela kontuan hartuta, Euskadiko Lurralde Historikoetan eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean diren Ekonomi Itunen foru zerga-arabideei kalterik egin gabea.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

07. BERDINTASUNA

Arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra sustatu, bermatu eta lortzea xede duten politika publikoekin konprometituta dago EAJ. Bereziki, emakumeak ahalduntzea, haiei autonomia ematea eta haien kokapen sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea xede duten politika publikoekin konprometituta dago, egiturazko berdintasunik eza eta sexuaren ziozko diskriminazio mota oro desagerrarazteko, emakumeen aurkako indarkeria matxista izanik diskriminazio horren erakusgarri nagusia. Konpromiso irmo horren mesedetan, emakumeen eskubideen arloan aurrerapausoa izan diren legez guztiak babestu ditugu.

Era berean, herri botere eskudunek emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko neurriak hartu behar dituztela defendatzen dugu EAJtik, indarkeria mota hori prebenitzeko, aurre egiteko, erreparazioa emateko eta desagerrarazteko.

Horretarako, honako neurri hauek proposatzen ditugu Estatu mailan:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. EAJk emakumeenganako diskriminazio mota guztiak desagerrarazteko esparru juridiko osoa benetan eta eraginkortasunez betearazi eta garatzeko lan egiten jarraituko du, baita politika publiko guztietan kutsu feminista duen genero-ikuspegia txertatzearen alde lan egiten ere. Horretarako:

- ✓ Berdintasun politiken garapenean eta jarraipenean sakonduko dugu eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea ahalbidetzen duten ekimenak sustatuko ditugu, emakumeen eta gizonen presentzia parekidea bermatzeko. Horretarako, 3/2007 Legea aldatu eta moldatuko dugu [martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko dena].
- ✓ Emakumeei erabakiak hartzeko arloetan parte-hartze parekidea bermatzeko neurriak hartzea, erantzunkidetasuna garatzen jarraitzeko ereduak ezartzeaz gain, ordutegiak eta denboraren erabilera arrazionalizatzeko politikekin.
- ✓ Enpleguaren arloan emakumeen eta gizonen ordainsari-, tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko neurriak betetzea, generoaren arabera soldata-arrakala desagerrarazteko. Horrez gain, generoaren arabera pentsio-arrakala murrizteko hartutako neurriak betetzea.

Indarkeria matxistaren aurkako borroka. Emakumeen aurkako indarkeria matxista da emakumeen eta gizonen arteko egiturazko berdintasunik ezaren adierazpen gorena eta EAJk irmo egingo du giza eskubideen urraketa horren aurka.

Undorioz, indarkeria matxista prebenitu, jazarri eta desagerrarazteko eta emakumeei eragindako kaltea konpontzeko legegintzako ekimen eta akordio esanguratsu guztietan parte hartu dugu eta hala egiten jarraituko dugu. Horretarako, uste dugu honako hauetarako lankidetzatza botere publikoen ardura dela, bakoitzaren eskumeneren baitan:

- ✓ Indarkeria matxistaren aurka egiteko baliabide nahikoa bermatzea.
- ✓ Espezializazio-, sentsibilizazio-, prebentzio- eta erreparazio-politikak gauzatzea, justiziaren arloan bereziki.

Sexu-indarkeriak. EAJtik, baimena ematea sexu-delitua egon den ala ez zehazteko elementua izan behar dela defendatu izan dugu, horixe izanik erasotzaileak zigortzeko aintzat hartu beharreko elementua: "Baimenik eman ez bada, eraso izan da". Horrez gain, EAJtik uste dugu, zigor penalaz gain, legeetan sexu-indarkeriaren biktimak prebenitzeko, babesteko, laguntzeko eta erreparazioa eskaintzeko jasotako neurri guztiak baliatu behar direla. Horretarako, honako hauek egin behar dira:

- ✓ Sexu-indarkeria administratiboki akreditatzeko sistemak martxan jartzeko oinarritzko prozedura garatzea.
- ✓ Doako laguntza juridikoa emateko legeak aldatzea, sexu-indarkeriaren biktimei ere doako laguntza juridikoa eskaintzeko.
- ✓ Fiskaltza eta emakumeenganako indarkerian espezializatutako epaitegietan diharduten epaileak sexu-indarkerian espezializatzeko legeak aldatzea, horiek ere sexu-indarkeriaren salaketak ikusiko baitituzte.
- ✓ Epaitegietan biktimei eman beharreko laguntza hobetzea, sexu-indarkeriaren arloan prestakuntza jaso duten eta diziplina desberdinetakoak diren talde teknikoekin.

LGTBI+ eskubideetan aurrera egitea. LGTBI pertsonen eskubide guztien defentsarekiko konpromisoa mantenduko du EAJk eta lankidetzan arituko da kolektibo horrekin, haien eskubideak bermatzeko legeria betetzen dela eta politika publikoetan benetan aplikatzen dela bermatzeko.

LGTBIfobia desagerrarazteko eta LGTBI pertsonen beren eskubide eta askatasun guztiak gauzatzeko aurki ditzaketan oztopo guztiak kentzeko ere lan egingo dugu.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

08. ENPLEGUA, ERRONKA BERRIAK

Egia esan, azken hiru urteotan kanpotik etorritako shock-en aurrean (pandemia, hornidura-arazo globalak, Ukrainako gerra, energia-krisia eta inflazioa), lan-merkatuan enplegua sortzeko erritmoa pixka bat moteldu den arren, bide onetik doa. Hala ere, aldi baterako eztabaida publikotik aldendu ditu ekonomiaren egiturazko zenbait defizit, produktibitate baxua eta ordainsarien debaluazioa, esate baterako.

Produktibitatea ez da hobetzen eta enpleguaren kalitateari eragiten dio. Izan ere, soldatak baldintzatzen ditu epe ertain eta luzera eta gomendagarria litzateke hori landu eta zuzentzea, arriskuan jartzen baitu enplegua areagotzeko aukera. Horrenbestez, komenigarria litzateke hezkuntzan, lan-politikan eta berrikuntzan erreforma nabarmenak egitea, produktibitatean eragina dutelako eta ekonomia batek balio eta ongizate handiagoa sortzea ahalbidetzen dutelako.

Era berean, ezin da ahaztu ordainsariak behera egin dutela. Soldatak ez dira inflaziora egokitu, ez dute galdutako erosahalmena berreskuratu. Ondorioz, enpresek lehiakortasuna irabazi dute eta ekonomiak gora egin du, baina lan-baldintzak merkatu eta prekarizatu direlako.

Gure gizarteko bi elementu garrantzitsu dira hezkuntza eta enplegua eta gainera, elkarrirerabateko lotuta daude. Hezkuntzara sarbidea izateko aukera-berdintasunak lan egiteko eskubidea benetan baliatzea ahalbidetzen du. Hala, hezkuntza, prestakuntza eta jarduera ekonomikoa lotzeko beharra indartu behar da.

Gaikuntza profesional falta oso arazo larria da, gaur egungo munduan espezializazioa eskatzen delako eta gainera, langabeziaren kausetako bat delako. Horrenbestez, prestakuntza faktore estrategikoa bilakatu da hazkunde ekonomikoa eta gizarte-ongizatea bultzatzeko orduan.

Gainera, lanerako prestatzeko, inguruan sortzen diren beharrezko berrietara etengabe egokitu beharra dago. Horretarako, jarraitutasun bat egon behar da enpleguaren eta laneko etengabeko prestakuntzaren artean. Beraz, garapen ekonomikorako ere, lehiakortasunaren ardatza da prestakuntza.

Egungo egoeran, hiru trantsizio handi daude: trantsizio demografikoa, luzaroago bizi garelako eta jaiotza-tasak behera egin duelako; trantsizio teknologikoa, konputazio eta adimen artifizial gehiago dagoelako; eta azkenik, trantsizio klimatiko eta energetikoa, ekoizpen-eredua aldatzen ari direlarik. Trantsizio horiek aukera paregabea dira laneko paradigma aldatzeko: lanbide berriak agertu dira, prestakuntza-eskaera aldatu da, lan-merkatuan gaitasun berriak eskatzen dira, etab.

Hala, enplegua mantentzea eta garai berrietara egokitzea, eraldaketan eta erronka digitaletan oinarritutako ekonomia berria dugula kontuan hartuta, eta oro har lege-esparrua lan-harremanetarako eredu berrietara egokitzea (Estatuaren eskumena da hori), erronka berriak dira tea EAJk horiei aurre egiteko lan egiten jarraituko du, oinarritzko bi helbururekin: alde batetik, lan-kontratuen baldintzak eta horietan jasotako soldatak hobetzea, prekarietatea eta soldaten debaluazioa saihesteko; bestetik, arau-esparrua enpleguaren beharrezko berrietara egokitu eta eraldatzea.

Iraganean erronka lanetik botatzea eta eskulanaren kostua merkatzea xede bakar gisa zituen lan-erreformaren ondorio maltzurak antolamendutik desagerraraztea zen erronka, lan-erreforma hark lan-harremanetarako ereduak prekarizatu zituelako; orain, aldiz, hobekuntzak sendotu behar dira eta sistema ekoizpen modu berrietara egokitzeari lotutako gaiak sartu behar dira eztabaidan. Horretarako, prestakuntza sustatu behar da ezinbestean, ekoizpena espezializatzeko eta eraginkor bihurtzeko funtsezko elementua baita.

Gure ustez, ezinbestekoa da etorkizuneko enpleguaren inguruan eztabaidatzea. Elkarrizketa soziala oinarri izaten jarraitu beharko du eta horregatik, langileen eta enpresarien arteko botere-oreka oinarri duen lan-harremanetarako eredia izan beharko du ardatz, kalitatezko enplegua sortzeko. Hori dela eta, administrazioek prozesu horren aldeko konpromisoa hartu behar dute, etengabe eguneratzen joateko esfortzua egiten jarraituz.

Horretarako, Langileen Estatutuaren indarreko testua eguneratzeko eta batez ere, enplegu-politika aktiboak sustatzeko aukera landu beharko genuke, lan-merkatua eraldatzeko elementuak baitira.

Alde horretatik, lan-harremanek berriazko esparru bat izatea aldarrikatzen du EAJK, Estatuak behin eta berriro ukatzen duen arren; hau da, gure ingurunera egokitutako esparru bat nahi dugu. Izan ere, errezetak ezin dira orokorrak izan, baizik eta eremu geografiko eta sektorial bakoitzeko errealitatera eta ezaugarrietara egokitu behar dira, horrek bihurtzen baititu eraginkor.

Enpresen eta langileen erantzukidetasuna sortuko duten neurriak hartzea proposatzen dugu, etengabeko prestakuntzaren eta egonkortasunaren alde egiteko, enplegu berriaren elementu bereizgarri moduan, eta prekarizazioa ihes egitea eta enplegu berrien balio erantsia areagotzea ardatz izango dutenak.

Hala, enplegu-politikak enpresei laguntzeko formula direla uste dugu. Horrek enplegu betearen lortzea, enplegu prekarioa modu estrukturalen murrizten, egungo enplegua pixkanaka aldatzen eta errealitate eta eraldaketa berrietara egokitzen, langabezia murrizten eta langabezia kasuetan behar bezalako babesa eskaintzen lagundu behar du.

Horretarako, EAJK honako neurri hauek proposatzen ditugu arlo horretan.

Lan-harremanen esparru propioa. Euskadik autogobernurako borondatea eta eskubidea ditu, baita ezaugarri ekonomiko bereziak ere, hazkundearen eta produktio-egituraren ereduari dagokionez. Beraz, erabat nahitaezkoa da lan-harremanen esparru autonomo propio bat izatea, Euskadiko enpresen eta ekonomiaren premiei erantzuneko dien eta gizarte-kohesioaren zein elkartasunaren aldetik ditugun balioak aintzat hartuko dituen euskal lan-merkatua eta lan-harremanetarako egituratu dadin. Horretarako, hitzarmen kolektiboaren eraginkortasun-esparrua aldatzeko eskatuko dugu.

Genero-berdintasuna enpleguan ere bai. EAJren ustez, generoa dela-eta diskriminaziozko edozer tratatu suposatzen duten oztopo guztiak kendu behar dira lehenbailehen. Horregatik, premiazkoa da genero-berdintasuna sustatzea eta bermatzea xede duten neurriak indartzea, baita laneratze-arloan, lanbide-heziketan eta lan-baldintzetan ere. Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala gaitzetzaren tankerako jarduerak izan behar dira irizpide nagusi. Hala, emakumeek erabakitzeke eremuetan parte-hartze parekidea izateko neurriak sustatu behar dira, bizitza eta enplegua bateragarri egiteko ereduak ezartzen jarraitu behar da eta ordutegien arrazionalizazio-politikak sortu behar dira, besteak beste. Era berean, **kontratazio publikoan genero-berdintasuna bermatzeko neurriak ezartzen jarraitzea defendatuko dugu.** Horretarako, euskal administrazioetan ordainsarien arteko berdintasuna lortzeko eta soldata-arrakala desagerrarazteko bidean egindako lana oinarri hartuta, jarduketan hildu hau Estatu Administrazio Orokorren kontratazio-organo guztietara zabaltzea proposatzen dugu, kontratazio-agirietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna esleipenerako irizpide gisa txertatuz.

Enpleguaren eta garapen ekonomikoaren aldeko ituna. Enplegua sortzeko eta horren kalitatea hobetzeko lankidetzaren itun handi bat egin behar da gizarte-sektore guztien artean. Itun horren funtsezko ardatza ekonomia lehiakorrago baten bidez enplegua sortzea eta mantentzea izan behar da, hazkundera handiagoa izan dadin. Gai horretan eskumenak dituzten erakundeak eta eragile ekonomiko eta sozialak barne hartu behar ditu itun horrek, eta oinarri zehatzak eta finkoak izan behar ditu, hala nola enpleguaren egonkortasuna, etengabeko prestakuntza, ekoizpen-prozesua lan egiteko modu berrietara egokitzeak ekarritako lehiakortasuna, baita soldadak produktibitatearekin lotzen lagunduko duten mekanismoak bultzatzea ere, enpresak lehiakorragoak izan daitezen, eta aldi berean, langileen eskubideak babestu daitezen.

Langileen Estatutuaren aldarazpena, hitzarmenen lehentasunari dagokionez. Langileen Estatutuan berrikitan eginiko aldarazpenei balorazio positiboa ematen diegun arren, lanketa horretan guk ere parte hartu genuelarik eta lan harremanen marko propioa izateko egiten dugun defentsaren ildo beretik, negoziaketa kolektiboa finkatzeko beharra aldarrikatzen dugu, eraginkorra izan dadin tokian tokiko eta esparruan esparruko errealitate ekonomikoari erantzun behar diola ulertuz. Ondorioz, Autonomia Erkidegoetako hitzarmen kolektiboen lehentasuna jaso behar da estatuko hitzarmenen gainetik jarriz, lehenengo horiek langileentzat mesedegarriagoak direnean.

Lanbide Heziketa Duala ezartzea maila guztietan. Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria izan da lanbide-heziketa duala (maila guztietan) lan-prozesuan txertatzeko orduan. Horregatik, esfortzu handiagoa egin behar da eta prestakuntza duala maila zabalago eta trinkoago batean txertatu behar da, lanpostuan bertan prestakuntza jasotzeak ematen dituen abantailak aprobetxatuz eta enpresek gure gazteen gaikuntzan duten erantzunkidetasuna landuz.

Gainera, eta enpresen eta unibertsitateen partetik goi-mailako gaitasunen prestakuntzaren inguruan dagoen eskaerari jaramon eginez, unibertsitateko lanbide-heziketa dualaren berariazko eremua aintzatestea bultzatu behar da. Eta bestetik, laneko etengabeko prestakuntza landu behar da, batez ere premia moduan, eta ez hainbeste laneko politiken modalitate moduan, langileak etorkizunean lan egiteko modu eta lanpostu berrietara egokitzeko premia sortuko baita.

Gazteen enplegua. Bakoitzaren abiapuntua oso desberdina dela eta kolektibo honi zuzendutako politika orok gazteen enpleguaren prekarizazioa ekiditeko neurri zehatzak barne hartu behar dituela aintzat hartuta, gazteen kontratazioa sustatzeko neurriak hartu behar dira, kontratazio espezifikorako formulak erabiliz zein diru-laguntzak emanez.

Enplegurako politiken eta hezkuntza- eta prestakuntza-politiken arteko lotura hobetzea, beharizan eta gaitasun berriak identifikatzeko.

Migrazioarako politikek lan-merkatuko beharrezan eraginkortasunez erantzuteko **duten ahalmena hobetzea** (beste herrialde batzuetako pertsonen gaikuntza aitortu, jatorrizko herrialdeetan kontratazioaren kudeaketa hobetu, migrazio zirkularra...).

Kontratzeko formulak eta bekadunak. Lan-kontratuak sinplifikatzea eta iruzur-poltsak ekiditen saiatzeak ez du lan-merkatuaren errealitatea hutsaldu behar, ezta prestakuntza-prozesuak ere. Kolektibo jakin batzuek babes berezia behar dute, kalteberagoak direlako, eta horrekin batera berme nahikoa eskaini behar zaie, ezinbestean esfortzu kolektiboa egin behar delarik. Zehazki, prestakuntza-sistemetatik eratorritako praktikak arautuz gero, kurrikularrak izan zein ez, bekadunek babes-sisteman (kotizatzeko obligazioan) bermeekin parte hartzea ahalbidetu beharko da, enpresek prozesu dual horietan parte hartzeko disuasio-elementua bilakatu gabe, gastuaren partetik zein oztopo burokratikoaren partetik.

Langabezia-estaldura hobetzea. Langabezia-estalduraren muga 36 hilabetera zabaldu behar da gehienez ere, eta laguntza horiek enplegarritasunarekin lotutako prozesuetan parte hartzeko laguntzekin lotu behar dira. Izaera unibertsaleko babes emateko mailara hurbildu behar gara, gutxienez langabetu kronikoei dagokienez, laneko merkatuan berriz ere sartzeari bereziki zaila bazaie; hala ere, laguntza horiek emateko enplegua aktiboki bilatzea eta hartzaileek prozesu horietan parte hartzea ere exijitu daiteke.

Lehiakortasun digitala. Europako Batzordeak lanpostu berriak merkatuko gaitasun berrietara etengabe egokitzen joateko beharizanaren sinonimo gisa definitutako funtsezko gaitasunetako bat da. Azken finean, datozen hamarkadetako ekoizpen-formuletara egokitzeko prozesu bat instituzionalizatzea datza. Eta horretarako, zalan-tzarik gabe, gaitasun berrietara egokitzeko beharra egongo da, batez ere arlo digitalean. Ondorioz, pertsona guztiek beharko dute digitalizazioaren inguruko ezagutza eta espezializatu egin beharko dira, gauzatze eta garapen pertsonalerako zein herritar aktibo izateko, gizarteratzeko eta laneratzeko.

Desgaitasuna edo gaitasun bereziak dituzten pertsonak laneratzeari. Helburua da Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Hitzarmena eta indarreko legeria betetzea, desgaitasuna duten langileen integrazio-ehunekoari dagokionez. Gure helburua da kolektibo hori lan-eremu arruntean integratzen lagunduko duten baldintzak sortzea edo ahalbidetzea, behar ditzaketan laguntza integraleko neurriekin kalterik egin gabe. Horrela, besteak, beste, gure taldeak nabarmentzen jarraituko du (aurreko legerietan egin zuen moduan) desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu publikoko erreserba-kupoa handitu egin behar dela, sektore pribatuan sar daitezen sustatu behar dela eta bermeak ezarri behar direla aurreikusitako kuotak bete daitezen.

Langile autonomoentzako babes-sistemak bateratzen joateko esfortzua sustatzea Prozesu hori Sistemaren azken erreformaren bidez bultzatu bazen ere, beharrezkoa da emaitzen analisia egitea, langile autonomoen babes-sistema besteren konturako langileen babes-sistemarekin bateratzeko prozesua (Gizarte Segurantzak babestutako ezbeharren kasurako) asmo-adierazpen hutsean gera ez dadin. Horretarako, xede dituen pertsonen benetako aukeretara egokitu beharko da prozesu hori.

Ezin dugu ahaztu guk errealitate propioa eta berezia bizi dugula, EAEn eta Nafarroan, lan elkartuko kooperatibak ditugulako eta horiek beren estaldura-sistema propioa dutelako. Horien kasuan, bereziak direla aitortzeko eskatzen jarraituko dugu.

Enpleguaren arloko iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren kontrako borroka indartzea, langileen eskubideak eta enpresen lehiakortasuna mugatzen baitituzte.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

09. PENTSIIO BIDEZKOAK ETA DUINAK

EAJren printzipioetako bat guztiontzako Euskadi eraikitzeko konpromisoa da, oparotasun inklusiboa sortuz, lankidetzaz publiko-privatuaren bidez jardueraz ekonomikoa eta aberastasuna lortzeko, baina aldi berean babes sozialarekin eta gizarte sozialarekin bateragarri eginez.

Ilido horretatik, EAJk belaunaldi guztientzako eta batez ere adineko zein erretiroa hartutako pertsonentzako Euskadi eraikitzeko konpromisoa atzeraezinari helduko dio. Horretarako, babes sozialerako sistema jasangarria eratuko du, aurreikuspen soziala horren

ezaugarri garrantzitsuenetako bat izanik.

Horregatik, beti pentsatu dugu gizarte aurreikuspeneko euskal sistema bat izatea. Gizarte Segurantzaz arloan eta bere araubide ekonomikoz estatutuak dituen eskumenak erabat baliatuz geure herritarrei estaldura emango diena, Gernikako Estatutuak xedatzen duen bezala.

EAJ ongizate estatuzaren oinarritzako eta funtsezko zutabeetako bat izaten jarraituko duen pentsio-sistema baten defentsaren aldekoa da; belaunaldiarteko elkartasunean eta aberastasunaren birbanaketan oinarritua. Aberastasun hori kalitatezko enpleguek eta ekarpen publikoek (kontributiboak ez diren kasuan) sortuko lukete eta horiek, hain zuzen, **pentsio duin eta iragargarriak** bermatuko lituzkete gardentasun giro batean, finantzaketa-iturri seguruek sostengatua. Konpromiso horren erakusgarri, **2018an eta 2019an pentsioak KPIren arabera igotzea lortu zuen EAJk** (% 1,6). Horrez gain, jasangarritasunaren faktorea atzeratzea eta alargun-pentsioak igotzea lortu zuen (horien oinarri arautzailea igoz).

Defendatzen dugun sistema publiko horrek erronka berriei ere erantzuna eman behar die, besteak beste, demografikoei eta bere iraunkortasunari buruzkoei.

Gizarte-aurreikuspeneko sistema honek printzipio hauek errespetatu behar ditu:

- ✓ Egonkortasuna eta segurtasun juridikoa eman behar ditu epe luzera.
- ✓ Iturrien iraunkortasuna eta zenbateko nahikoa bermatu behar ditu.
- ✓ Publikoa eta atzeraezina izan behar da.
- ✓ Banaketa izan behar du xede.
- ✓ Solidarioa eta belaunaldien artekoa izan behar da.
- ✓ Elkarrizketa eta adostasun sozial sakona izan behar ditu oinarri.

Eta adierazi dugun bezala, euskal erakunde publikoek kudeatu behar dute, gure lurraldean bertan.

Halaber, EAJk, eta Europako gure ingurune kulturean dauden eredu konparatuei begiratuta (erantzun argigarriak eman baitituzte ildo horretan gure iritziak), egoki deritzo bigarren zutabea deritzona edo enplegu sistemena garatu eta bultzatzeari, negoziazio kolektiboan oinarritutako enplegu sistemak, osagarriak eta inondik ere ez lehen

zutabe publiko hori ordeztu edo ahultzeko asmoz eginak, horrela etorkizuneko aurreikuspenarekiko konpromiso gehigarri bat eta enpresek eta langileek nahi dutena, pentsio nahikoa eta iraunkorra izatea, bideratuko baita.

Hirugarren zutabea, bestalde, banako aurrezki planak izango lirateke, eta horri ez liokete kalterik egingo, ondo ulertuta hauek guztiz osagarriak direla eta inola ere ez zutabe publikoaren ordezkioak, etorkizuneko pentsioaren diseinuan pertsona eta familia bakoitzari esfortzu handiagoa egiteko aukera eskaintzen diona.

Printzipio horien mendean, pentsio doi eta duinak bermatzera orientaturiko proposamen hauek planteatzen ditugu:

Gernikako Estatutuaren baitan indarrean den esparru juridiko-politikoaren erabat errespetatzeko, Estatutuaren 18.2 artikuluan eta bosgarren xedapen iragankorrean jasotakoa betez, **Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzeko eskumenak transferitzeko** eskatzen dugu, bere batasuna zainduz eta solidaritate-printzipioa errespetatuz.

Kontua ez da, bakarrik, Gernikako Estatutua osorik betetzea, baizik eta euskal erakundeak gure herritarrei arreta sistema oso bat emateko behar den kudeaketa-tresna batez hornitzea.

Toledoko Itunaren funtsa mantentzea:

- ✓ Pentsioak KPIren arabera ez eguneratzea saihestuz. Toledoko Ituna pentsio-sistemaren iraunkortasuna bermatzera zuzendutako neurri eta gomendioak aztertuta eta proposatzeko oinarritzeko esparrua da. 2018 eta 2019rako EAJk bultzatu eta lortutako igoera orokorraren ildotik, pentsioak KPIren arabera eguneratzea aldeztu dugu, balio irabazte hori behin betikoa izan dadin.
- ✓ Pentsio-sistemaren iraunkortasun finantzarioa bermatzeko duten neurriak bultzatuz, kotizazioak ordaindutakoaren arabera prestazioak finantzatzeko soilik erabili behar direla kontuan hartuta, eta pentsio-sistemaren bermetan Aurrekontu Orokorrek egin behar dituzten ekarpenak gorabehera.

Genero-arrakala eta pentsioak. Europako Parlamentuaren 2016/2061 Ebazpenarekin bat datozen neurriak, ebazpen hori pentsioen kasuan genero-arrakala ezabatze-ko eta genero-arrakala prebenitzeko estrategia baten beharri buruzkoa izanik.

Sistemak denbora luzean emakumeei ezarri zizkien kotizazio arloko disfuntzioen zuzentzaile aritu diren neurri puntualak ezartzea izan dute batez ere oinarri pentsioen arloko berdintasun politikek. Horregatik, eta orain arte hartutakoak mantentzea gorabehera, neurri estrukturalak hartzea bultzatuko dugu, kotizazio ibilbidea eteteagatik edo nahi gabeko kotizazio hutsuneengatik sortzen diren ondorioak saihesteko.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateratua erreformatzea, Pentsioen Erreserba Funtseko libre erabiltzea saihesteko edo mugatzeko, gehienezko % 3 hura berreskuratuz, aterabide hori salbuespenezko egoeretan bakarrik erabili ahal izaten jarraitzeko, ohiz kanpoko kontrol bideekin eta Pentsio-sistema Publikoaren iraunkortasun berme finantzarioaren mekanismo gisa.

Gizarte Segurantzaren Sistemari ez dagozkion gastuak berraztertzea eta, kasua bada, kentzea, besteak beste, Gizarte Segurantzako salbuespenak, hobariak eta enpresen kotizazio murrizketak, eta Gizarte Segurantzaren administrazio gastuak, Estatuaren Aurrekontu Orokorren kontura zuzenean finantzatu beharko baitira.

EAJk egoki ikusten du **enpresa-planak** irmo **bultzatzea**. Horretarako, negozioazio kolektiboan helburu horretara bideratutako enpresa-planen eta zerga-politiken garrantziaren berri emateko obligazioa lan-arloko araudian txertatzea proposatzen dugu.

Langile migratzaileak eta Gizarte Segurantzza. Migrazio-politika funtsezko elementu bilakatu da oreka demografikorako, eta, ondorioz, lan-merkatua garatu eta finkatzeko eta ekonomiaren hazkunderako. Aurrekoaren proiektio gisa, pentsio-sistemaren indarbide eta bideragarritasun baldintza gisa ere bai. Azterketa guztiek baieztatzen dute pentsio-sistemaren etorkizuna, zati batean, langile migratzaileak gehituta sostengatuko dela, eta horregatik ezinbestekoa da gehitze hori «legezkoa, segurua eta ordenatua» izateko neurriak hartzea, 2018ko abenduaren 5ean eta 6an MARRAKEXEN egindako Migrazioarako Munduko Itunean jasotako gomendioen ildotik.

Era berean, laneko kontratua duten pertsona migratzaileek gaur egun indarrean den finkatze-prozesutik pasatu behar ez izatea proposatzen dugu.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

10. EUROPA: ERRONKAK ETA AUKERAK

Europar Batasuna proiektu ekonomikoa baino gehiago da, gizarte-proiektu bat barne hartzen baitu. Hala ere, egia esan, momentu delikatuak bizi ditu duela urte batzuek geroztik, baita arazo existentzialak ere. Europar Batasunaren beraren bilakaeraz gain, ondoko ondoko krisiei edo etorkizuneko erronkei egin behar die aurre. Horiek, hain zuzen ere, Europar Batasunaren beraren proiektuaren sendotasuna eta etorkizuneko orientazioa proban jartzen ari dira. Brexit-a 2020an; covid-aren pandemia, politikan, ekonomian, gizartean eta osasungintzan izandako ondorioekin; orain gutxi Errusiak Ukrainaren aurka hasitako gerra... Guztiak ere, azken urte

hauetan EBk izan dituen inguruabarren adibide dira.

Mendeetako historian, EAJk Europaren aldeko bokazio argia eta proiektu europarrarekiko konpromisoa erakutsi izan ditu, hots, Europaren printzipio eta balioekiko konpromisoa: giza eskubideen, demokraziaren, askatasunen, merkatuko ekonomia sozialaren eta aniztasunaren defentsa eta Europako Herrien arteko errespetua eta aitortpena, bakea, bizikidetzeta eta aurrerabide ekonomiko, sozial eta kulturala lortzeko oinarri gisa.

Hori dela eta, zentzu horretan Euskaditik eta ordezkariak dugun Batasuneko erakundeetatik egiten dugun lanaz gain, Madrildik Europar Batasunaren baitan tresna ekonomikoak indartzeko eta Europa demokratikoago, lehiakorrago, sozialago, berdeago, digitalago eta estrategikoki autonomoago baterantz joateko planteatzen diren ekimen guztiak babesten jarraituko dugu, Euskadirena bezalako errealitate nazionalak behar bezala aitortuta, errespetatuta eta ordezkaturik egon daitezzen.

EAJk Europaren alde hartutako konpromiso honen erakusgarri izan da Europako Etorkizunari buruzko Konferentzian (CoFoE) izandako parte-hartze zuzen eta aktiboa, foro horretan izandako Gorteen delegazioaren bitartez.

Ukraina: Europarentzako aro-aldaketa

Errusiak Ukraina erasotzeko hasitako gerrak eta horren ondorio geopolitiko, ekonomiko eta sozialek Europar Batasun osoaren lanerako agendaren lehenengo postuan egoten jarraituko dute datozen hilabeteetan eta urteetan. Ezinbestekoa da EB esku hartzeko batasuna, neurriak eta ukrainarrak babestu eta laguntzeko beharrezkoak diren jarduketak bermatzen jarraitzea. Ildo horretatik, EAJtik EBren Autonomia Estrategiko irekiaren bidetik irmo aurrera egiteko balio duten neurri guztiak babesten jarraituko dugu. Hala, sektore desberdinetan esku hartuko dugu eta bereziki, industrian eta lehengai kritikoen arloan, baita Atzerri- eta Segurtasun-politika Erkidearen arloan ere (PESC), EBren Iparroratz Estrategikoa aplikatuz eta kasua bada, errealitate geopolitiko berrira egokituz.

Europako erronka berriak.

Ukrainako gerrak zera erakutsi digu: alde batetik, Europaren kalteberatasuna; bestetik, Europak inguruabar geopolitikoekiko duen mendekotasuna eta erronka batzuei aurre egiteko beharra, erronka horiek murrizteko, hain zuzen ere.

Ildo horretatik, Europar Batasunak industrializazioa, autonomia estrategikoa eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatuko dituen gobernantza energetiko, ekonomiko, finantzario eta digitalaren esparru berria definitzeko irmo lan egitea defendatuko du EAJk.

Euskadik Europar Batasuneko instituzioetan erabat eta eraginkortasunez parte hartzea

Era berean, Euskadik EBko Kontseiluaren formazio desberdinetan duen parte-hartze eraginkor eta osoan sakondu eta hura osatu beharko litzateke, baita Europar Batasuneko instituzioetan duen presentzia ere, aitortuta ditugun eskumenen arabera. Batez ere, ECOFIN Kontseiluan eta JAI Kontseiluan (Justizia eta Barne Gaiak) sakondu beharko lirateke horiek.

Europako Makroeskualde Atlantikoa

Europar Kontseiluari eskatzea Europako Batzordeari Europa mailako Makroeskualde Atlantikoa sortzeko agintzeko, lankidetzeta europarra baliatuz eremu atlantikoaren erronka nagusiei aurre egin ahal izateko, hala nola energiaren eta trenbideen interkonexioak, lehiakortasuna eta digitalizazioa, klima-aldaketa, ozeanoen zaintza eta arrantza iraunkorra, ekonomia urdina, bilakaera demografikoa zein Erresuma Batuekiko harremanak. Makroeskualde Atlantikoaren bitartez, tartean diren lurraldeek giro europar eta europazale batetik lan egin ahalko lukete.

Banku Batasuna osatzea (hirugarren ardatza), gordailuen berme-sistema komuna edo gordailuak bermatzeko Europako funtsa, gordailu guztiak berdin segurtatzeko.

Hauteskundeetarako lurralde-barrutiak. Estatuaren parte diren eta Europar Batasunaren bereizgarri den aniztasuna osatzen duten nazionalitateen aitorten konstituzionalarekin bat, nazionalitate horiek Europako Parlamentu berrian ordezkatzuta egotea bermatu behar da.

Mugaz haraindiko konexioak. Europa barneko garraio-sareen oinarritzko sarea (TEN-T) lortzeko epeak betetzeko eskatzea. Zehazki, penintsularen eta kontinentearen arteko mugaz haraindiko eremuetan epe barruan gauzatzeko eskatuko dugu, tarte horiei lehentasuna ematen dieten Batasunaren irizpideak errespetatuz.

Hizkuntza-aniztasuna bultzatzea. Estatuko hizkuntza ofizialak, gaztelania ez direnak, ofizial gisa aitortzeko eskatzeaz gain, euskararen, katalanaren eta galegoaren presentzia eta erabilera bultzatuko ditugu Europar Batasuneko instituzioetan. Era berean, Euskadiko, Kataluniako, Valentziako, Balearretako edo Galiziako hezkuntza-sistemetako ikasleek bizi duten legez kontrako diskriminazioa ahal bezain pronto desagerrarazteko eskatuko dugu. Hala, hizkuntza horiek elkartrukerako plataformetan, hizkuntza-arloko laguntza emateko plataformetan eta plataforma akademikoetan (Europass) txertatuko ditugu berehala, baita enpleguaren eta gaitasunen inguruko plataformetan ere.

Ikasleen mugikortasunerako oztopoak desagerraraztea. Aurreko legegintzaldian egin dugun bezalaxe, Pirinioen alde bietan unibertsitatera sarbidea izateko politiketan dagoen berdintasunik eza konpontzeko irtenbide estrukturala eskatuko dugu. Iparraldeko ikasleek EAEn edo Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitateko ikasketak euskaraz egiten jarraitzeko aukera dutela bermatzea da helburua.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

11. GURE APUSTUAREN ARDATZAK: INDUSTRIA, LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA, ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK, AUTONOMOAK, SEKTORE EKONOMIKOAK, BERRIKUNTZA ETA NAZIOARTEKOTZEA

Euskadin betidanik egin da industriaren, berrikuntzaren eta teknologiaren aldeko apustua, hazkunde-motor diren heinean. Euskadik ondo frogatu du epe luzeko ikuspegiarekin diharduen industria-politika eredu sendo batekin (BPGren %25) enplegua, aberastasuna eta ongizatea areagotu daitezkeela.

Industriak berebiziko garrantzia dauka ekonomian. Izan ere, enplegua, aberastasuna, ongizatea eta gizarte-kohesioa sortzen laguntzeaz gain, trakzio-eragina du beste hainbat sektorerengan, eta ondorioz, ezinbestekoa da industria berriaz sustatzea.

Sekula ez dugu bat egin “industria-politikarik onena existitzen ez dena da” dioen ideia horrekin. Estatuak industria-politikaren arloan egin dituen aurrerapenak oso lotsatiak izan dira eta ez dute epe luzeko estrategiarik izan. Hori dela eta, industria-sektorea atzean geratu da, ez dauka nahiko gurek pisua ekonomian eta, hala, ezin izan dira bere desorekak konpondu: produktibitate-defizita, inbertsio eskasa bai I+G arloan eta baita ezagutzaren eta trebakuntzaren arloetan ere, eta horrek eragin negatibo nabarmena dauka horien lehiakortasunean.

Ezin dugu gure egungo testuingurua alde batera utzi. Alde batetik, bizi izan ditugun hiru lurrikarek (pandemia, hornidura-katearen hauskortasuna eta Ukrainiako gerra orain) Europako industria-ikuspegia aldatu dute; Europa desindustrializatu egin da, Asiako zenbait herrialde kaltetu ditu, hiru gertakari horiek Europak beste lurralde batzuekiko daukan mendekotasuna frogatu digute eta horrek agerian utzi ditu globalizazioaren ahuleziak eta berrindustrializatzeko beharra. Bestetik, inflazio altuak finantza-baldintzen gogortzea ekarri du, zeinak industria-sektoreari eta, azken finean, enpresei eragin dien, ondorioak baititu haien inbertsioetan.

Larrialdi uneetan herrialdeen egonkortasuna bermatuko duen industria sendo eta lehiakorra izatea beharrezkoa da, baina era berean, beharrezkoa da ohartaraztea berau lortzeko energiak daukan eragina funtsezkoa dela sektore askotan eta, horrenbestez, ezinbestekoa dela industria-energia binomioa bat etortzea trantsizio-ekologikoaren prozesuarekin. Halaber, binomio hori eta energia-klima binomioa bateragarriak izan daitezen lortu beharko dugu.

Next Generation funtsen bidez, agertoki horri aurre egiteko erantzun bikaina, integrala eta kolektiboa eman zuen Europak. Funts horiek pandemiaren ondorioei aurre egiteaz gain, inbertsioa sustatzea eta gure ekonomiak eta gizarteak eraldatzea zuten helburu. Eta funts horietan, hain zuzen, industriak eta enpresek leku garrantzitsu bat izan beharko lukete, eredu ekonomikoa aldatzeak zera eskatzen baitu, industriak eraldatzea, negozio-eredu eta merkatu-hobi berriak sustatzea, berrikuntza- eta enplegu-aukerak sortzea, produktibitatea hobetzea eta, azkenik, egokitzeko gaitasuna eta egoera konplexuei erantzun egokiak garatzeko gaitasuna garatzea, egungo gaitasun industrial, sozial eta ekonomikoen gainean eraikiz.

Estatuan, industriaren eta ETEen esparruko Next Generation funtsak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR, gaztelera) baitan dagoen Ekonomia Berreskuratze eta Eraldatzeko Plan Estrategikoaren (PERTE, gaztelera) figuraren bidez bideratu dira. Jakin badakigu dimentsio horietako plan bat aurrera eramatea zeinen konplexua den, eta badakigu aurrerapausoak eman direla plan horiek gauzatzeko, baina era berean nabarmenak dira horien aurka dauden oztopoak eta egiteke dauden aldaketak eta ekintzak, funts horiek behingoz benetako ekonomiara heldu daitezen eta lankidetzaren publiko-privatua horiek katalizatzeko tresna bihurtu dadin.

Industriaz gain, ezin dugu ahaztu beste sektore ekonomiko batzuek zer nolako garrantzia duten.

Lehen sektorea funtsezkoa da Euskadin. Izan ere, egiten duen ekarpen ekonomikoaz haratago, lotura estua dauka herrialdeko gizarte-erakundeekin eta ahalmen izugarria dauka baliabideak modu efizienteagoan erabiliz bere lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetuko dituen eraldaketa teknologikoari aurre egiteko.

Merkataritza oinarritzko sektorea da, bai bere tamainarengatik, bai gizartean daukan garrantziarengatik eta baita hiri eta herriak egituratzeko daukan gaitasunarengatik ere.

Turismoa, jarduera ekonomikoa eta enplegua dinamizatzeko eragile izateaz gain, tresna indartsua da nazioartekotze prozesuak eta merkatu berrietara zabaltzeko prozesuak sustatzeko.

Hori guztia dela eta, honako neurri hauek proposatzen ditugu:

Lankidetzaren publiko-privatua industria-politikaren ardatz bihurtzea

Helburua: lehiakortasuna sustatzea eta ekoizpen-ehun erresilientea garatzea. Enpresek ez dituzte arrisku teknologiko handiko eta industria-inpaktu handiko proiektuak abiarazten ez dutelako horretarako behar den finantza-giharririk (batik bat ETEek) eta finantza-sistema ere ez dago prest mota horretako proiektuak sustatzeko. Horregatik, administrazioaren sustapena beharrezkoa da proiektu mota horri tira egiteko eta horiek, gainera, etorkizuneko erronkei aurre egiten lagun diezagukete.

Industria-politiken eta energia-politiken koordinazio estuagoa sustatzea. Energiaren kudeaketa industriaren aldagai garrantzitsuenetako bat da, sektore askotan energia baita ekoizpen-faktore garestiena. Ondorioz, politika energetikoak industria sendotzen lagundu behar du eta, era berean, politika energetikoaren esparruko neurriek etxeko, enpresetako eta industriako kontsumitzaileen prezioetan izan dezakeen eragina aztertzen jardun behar du.

Eskualdeko Ekonomia Berreskuratu eta Eraldatzeko Plan Estrategikoaren (PERTE) figura aktibatzea. Hala, Europak zehaztutako esparruetan proiektu eraldatzaileak modu zuzenean bideratu ahalko dira, Estatuko PERTEen deialdietan aurreikusita egon beharrik gabe. Autonomia erkidegoen bidez baliabideak kapitalizatzea da xedea, horiek gero teknologia-proiektuetara eta industrializaziora edota enpresentzako dibertsifikaziora esleitzeko.

PERTEko ekimenen koordinazioa, diseinua, egikaritzea eta jarraipena sustatzea, autonomia erkidegoekin eta alor bakoitzean parte hartzen duten sektore eta enprekin batera (lankidetzaren publiko-privatua).

Industriaren alorrean autonomia erkidegoek dituzten eskumenekin bat etorriko den eta eskumen horiek errespetatuko dituen **industria-lege bat defendatzea.**

I+G+Bren aldeko apustua. Berrikuntza. Gure ehun ekonomiko eta soziala eraldatzeko funtsezko gakoak honako hauek izango dira; ezagutza sortzeko gaitasuna, enpresen eta gizartearen berrikuntza-gaitasuna, eta sortutako ezagutza hori balio ekonomiko eta sozial bihurtzea.

lkerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza eredu ekonomikoa eraldatzeko eta industria- eta enpresa-ehun osoaren lehiakortasuna handitzeko palankak dira.

EAJk honako hauen aldeko apustua egiten du:

- ✓ Berrikuntza zientifikoan eta teknologikoan aurrera egitea eta enpresen eraldaketa digitala bultzatzea
- ✓ Ikerketa aplikatua sustatzea. Berrikuntza-politikak industriaren premietan oinarritzea. Horrela, ezagutzaren enpresek eta azpiegiturek lagundu egin dezakete, eta ez dute soilik sistema publikoan oinarritutako ezagutza sortzen jardungo. Ikerketa eta garapena industriara heldu behar dira.
- ✓ I+G+B alorreko baliabideak eta inbertsioak kontzentratzen laguntzea, eskualde bateko produkzio-gaitasun potentzialekin sinergia nabarmenak daudenean.
- ✓ Ikerketaren aldeko apustua egitea enpresaren kudeaketa-, ezagutza- eta produkzio-ereduetan, tamainaren eta malgutasunaren aldagaiak bateratuz.
- ✓ Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatzea, industria-ikerketaren edo garapen esperimentalen esparruko proiektuen bidez.
- ✓ Europako Patenteari eragin bateratuarekin atxikitzea bultzatzea. Ezagutzaren ekonomian, non kontzeptu ukiezin ugari existitzen diren, funtsezkoa da jakitea nor den nor, jabetza intelektual eta industrialeko sistema sendo baten bidez. Hori dela eta, beharrezkoa da Espainiak sistema horretara atxikitzeko aurreikus-ten duen erabilera-hizkuntzaren oztopoa gainditzea.
- ✓ Talentua sortzeko eta erakartzeko estrategiak sustatzea, mundu globalizatu bateko lehiakortasunaren mugarri moduan.
- ✓ Berrikuntza irekiko ereduen onarpena bultzatzea, ekosistemetan oinarrituta daudenak.
- ✓ Industrian eta ETEetan eraldaketa digitala sustatzea. Horretarako, teknologia digital eta jasagarriek eskaintzen dizkiguten konponbideak txertatuko ditugu eta horiei esker industria adimendunerantz abiatuko gara. Hala, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egingo diegu.

Kooperatibismoa defendatzea eta bultzatzea

Kooperatibismoa eta ekonomia soziala elementu garrantzitsuak dira ekonomia inklusiboagoa lortzeko. Izan ere, kalitatezko enpleguak sortzen dituzten enpresak dira, eta horien jarduerak kohesio sozial handiagoa duen hazkundea sustatzen du, ingurumenarekin jasagarriagoa dena, eta gizarteari bizi-kalitate handiagoa eskaintzen diona. Ildo horretatik, kotizazio-baldintzak zehazteko unean gizarte-segurantzak mugimendu kooperatiboaren espezifikotasuna aitortzea bultzatuko dugu; hau da, kooperatibis-tek soilik euren lan-errendimenduak kotizatu ditzaten defendatuko dugu, itzulkinak kontuan izan gabe.

Era berean, LagunAroren pentsio-eredu mistoa babestuko dugu, zeina kotizazio-sistemen erreformek alde batera utzi baitute, eta horrek desagertzeko arriskuan jarri baitu.

Zibersegurtasuna

Industriaren alorrean, alde batetik datuen ekonomian ahaleginak areagotzea. Bestetik, enpresei laguntza eskaintzea teknologia hori baliatuz, ekonomia eta industria teknologikoago, robotizatuago eta automatizatuago baterantz bideratu gaitzen, non adimen artifiziala, algoritmo eta datuen konputazioan euskarrituta, etorkizuneko gakoa izango baita.

Erakundeetan zein norbanakoen egunerokoan teknologia berriek duten aplikazio eta erabilera masiboa ikusirik, zibersegurtasunak sorrarazten duen kezka haziz doa. Sare baten bidez gailuak eta objektuak elkarren artean lotzeko aukera gero eta handiagoa da. Horrenbestez, beharrezkoa da zibersegurtasunaren kultura sustatzen jarraitzea, bere ezarpenarekin lotutako jarduera ekonomikoak dinamizatzea eta sektore profesionala indartzea.

Internazionalizazioa

Internazionalizazioa, bizi garen mundu global honetan, premia bat da. Gure enpresak kanpora zabaltzea, mehatxua izan ordez, aukera bat da, ez bakarrik bezero, pertsona, hornitzaile eta teknologia berri gehiagorengana iristeko, baizik eta baita merkatuak dibertsifikatzeko eta mendekotasunak murrizteko ere. Horrek guztiak, gainera, enpresen erantzuteko ahalmena, malgutasuna eta azkartasuna hobetzen ditu eta, ondorioz, baita beren hazkundea, lehiakortasuna eta errentagarritasuna ere.

EAJk honako hauen aldeko apustua egiten du:

- ✓ Merkatu berrien irekiera sustatzea.
- ✓ Internalizazio prozesuan babesa eskaintzeko laguntza-planak sustatzea (ezarpen azterlanak, merkatu-ikerketak, bideragarritasun planak, kudeaketa-ereduak...).
- ✓ Internazionalizaziorako finantzaketa-programak bultzatzea.
- ✓ Nazioartekotze helburua duten enpresen arteko lankidetzak bultzatzea.
- ✓ Defentsa komertzialeko tresnak indartzea, kanpoko merkatuetarako sarbidea bermatzeko eta inportazioen lehia desleiala saihesteko.
- ✓ Partzuergoak sortzea bai jatorrian bai helmugan.

Enpresa txiki eta ertainak eta autonomoak babestea

Esparru desberdinetan laguntza eskaintzea: finantza-perspektibetan, berme-sistemak artikulatzen, kudeaketa-sistemen hobekuntzan, teknologiaren egokitzapenean eta merkatu berrietan sartzeko unean, arriskuak eta onurak partekatuz.

Egungo arau kopurua murrizteko plan bat bultzatzea, zaharkituta dauden arauak indargabetuz eta oztupo burokratikoak ezabatuz, arauen kalitatea hobetzeko eta jarduerak ekonomikoa sustatzeko xedez.

TURISMOA

Turismoa jarduera ekonomikoa eta enplegua dinamizatzen dituen sektorea da, baina ez du soilik balio-erantsi txikiko jarduera izan behar, eta ez da oinarritu behar aldi baterako enplegu ezegonkorrean, edota soldataren devaluazioan eta lanaldi murriztuetan.

EAJren konpromisoa honako hauetan oinarritzen da:

- ✓ Ondare naturala eta kulturala zaintzean oinarritzen den turismoa sustatzea
- ✓ Helmuga gisa bikaintasuna bilatzea.
- ✓ Enpresa turistikoen digitalizazioa hobetzea, horien heziz eta trebatuz.
- ✓ Desberdintzea bilatzea. Balio desberdindua proposatzea, eskaera trebatuena erakartzeko.

MERKATARITZA

Merkataritza oinarritzko sektorea da, bai bere tamainarengatik, bai gizartean duen garrantziagatik, baita hiri zein herrietako bizitza egituratzeko duen gaitasunarengatik edota bere jarduera ekonomikoagatik ere. EAJn badakigu hurbileko hiriko merkataritzak zer nolako garrantzia duen, funtsezkoa baita gure herriak eta hiriak antolatzeke, hirigintza diseinuari eta harreman sozialei dagokienez.

Hori dela eta, EAJren konpromisoa honako hau bultzatzea da:

- ✓ Komertzializazio teknika eta baliabideen modernizazioa.
- ✓ Negozio-eredu berriak eta kudeaketa aurreratua.
- ✓ Etorkizunean kontsumitzaileak edozein kanal baliatuko du merkataritza-jarduera bat gauzatzeko.
- ✓ Dena fisikoaren eta digitalaren integrazioa.
- ✓ E-commerce edo e-merkataritzaren garapena.
- ✓ On-lineko plataforma berriak garatzea.
- ✓ Trebakuntza digitala.
- ✓ Finantzaketa-iturrietara heltzeko sarbidea hobetzea.
- ✓ Kontsumitzailearekin lanketa pedagogikoa gauzatzeko hurbiltasunaren faktorea balioetsi dezan.
- ✓ Herri eta hirietan hurbiltasunaren merkataritzari mesede egingo dioten inguruneak sortzea, oinezkoentzat bideratuago eta ibilgailuen zirkulazio txikiagoarekin.

LEHEN SEKTOREA: NEKAZARITZA ETA ARRANTZA

Lehen sektorea funtsezko aktiboa da kultura-, gizarte- eta ingurumen-balioak belaunaldi belaunaldi helarazteko elementu gisa. Kalitatezko elikagai osasuntsuak sortzea oinarritzko ondasuna da mundu globalizatu honetan, non gero eta handiagoa baita elikadura-baliabideak lortzeko borroka. Ildo beretik, ingurune naturalaren zaintza eta klima-aldaketaren aurkako borroka ezinezkoak lirateke aberastasuna eta enplegua sortzen duen lehen sektore sendo eta berritzaile izan ezean. Halaber, gure Herrialdearen nortasun ikurra ere bada sektore hau. Hori guztia aitortuz, EAJk lehen sektorearekin duen konpromisoa indartzea proposatzen du.

NEKAZARITZA

Nekazaritzaren esparruan honako proposamen hauek dauzkagu:

Belaunaldi berrien erreleboa sustatzea. Horrek sentsibilizazio estrategia bat eskatzen du, nekazaritzaren eta basogintzaren sektoreei prestigioa emango diena eta baita neurri pizgarriak egituratzea (finantzaketa-tresnak, inbertsioa bultzatzeko zuzeneko laguntzak, belaunaldien arteko ezagutzaren transmisioa, aholkularitza) eta araudiaren aldaketak gauzatzea ere (zerga-pizgarriak, lurzoruaren araudiak, lurralde plangintza, ondorengotza-planak erraztea eta ustiapenen transmisioa), pertsona berriak modu eraginkorren txertatzea errazteko.

Elikadura Katearen Legea hobetzea, elikagaien merkatuetako berme juridikoa finkatzeko, sektorearen beharritza errealismo handiagoz erantzuteko eta legea lehiakorra dela bermatzeko, azpisektore guztietan aplikatzean.

Gainera, esne-paketeko hiru pilotuak betetzen direla ziurtatzeko lan egingo da (OPSen benetako funtzionamendua, epe luzerako kontratuak eta bi hilabete lehenago egindako eskaintza ezabatzea, eta interprofesionalen rola betetzea). Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren eta Nekazaritza Ministerioaren arteko aldebikotasuna eskatzen da. Era berean, **elikadura-katean eta zuraren sektorean digitalizazioa eta berrikuntza bultzatzea** defendatzen dugu, prozesuen eraginkortasuna hobetzen eta elikagaien zarrastelkeria murrizten laguntzeko, baita elikagai-produktuen balio erantsia handitzen laguntzeko ere.

NPBren Plan Estrategikoa Berrikustea, gure ustiapenen bideragarritasuna bermatzeko eta burokrazia murrizteko. Halaber, Erkidegoko funtsak (FEADER eta FEAGA) ahalik eta gehien aprobetxatzen direla ziurtatu nahi dugu, funts horiek erabat gauzatzen direla bermatzeko. Hirugarren herrialdeetatik datozen ekoizpenei ispilu-klausulak txertatzeko eskatzea.

Nekazaritza- eta basogintza-jardueraren kudeaketa iraunkorra sustatzea. Ekoizpen ekologikoa eta jardunbide iraunkorren sistemak bultzatzea. Abeltzaintzako ustiategiak berrantolatzea eta dagoeneko martxan diren ereduak jasangarri izatera bideratzea, lurraldeetako gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-orekak hautsi gabe.

I+Gren bidez lehiakortasuna sustatzea. Sektore-egituraketa, prestakuntza, aholkularitza, elikagaien sustapena, gizarte sentsibilizatzea edota kalitatezko produktuak sustatzea, besteak beste.

Aldebikotasunezko harremana Estatuarekin hainbat gaitan. Izan ere, nekazaritza gaietan Euskadi kompetentea den arren, eskumena oraindik ere Estatuarena da. Besteak beste, honako urrats hauek ematea eskatzen da: EBko Ministroen Kontseiluetan eta Nekazaritza Batzordeetan hitzarekin parte hartzea (gai espezifikoen), alde-bikotasuna Elikadura Katearen Legean, NPEn plan estrategikoen kudeaketa subsidiarioa Euskadiren eta Estatuaren artean, gure eskumeneko gaietan oinarritzko araudia kentzea (adibidez, Etxeko Animaliak Babesteko Legea, nekazaritzako aseguruen transferentzia, etab.).

Egungo genero arrakala murriztea eta erabakitze-organoetan emakumeen presentzia indartzea.

Energia berriztagarriak sustatzea, nekazaritzak eta basogintzak eskaintzen dituen baliabideak probestuz eta horien balioa handituz. Lehen sektorean energia berriztagarrien erabilera bultzatzea.

ARRANTZA

Arrantzaren sektoreak etorkizun jasangarria izan dezan, funtsezkotzat jotzen dugu:

Belaunaldi erreleboa

- ✓ Lanbide-heziketa duala egiteko aukera bultzatzea
- ✓ Arrantzako lanbide-tituluen esleipenak zabaltzea (Kostaldeko Patroi Balioaniztuna eta Arrantzako Tokiko Patroia)
- ✓ Ikasleei eta titulua berriki eskuratu dutenei praktikak arrantza-ontzietan egiten laguntzea.
- ✓ Diskriminazio positiboko neurriak ezartzea emakumeen lan-kontratazioan.
- ✓ Erretiroaren koefiziente murriztaileak berrikustea (itsasontziaren tamainaren arabera baino gehiago, etxetik kanpo egindako denboraldien arabera).
- ✓ Familia-enpresei aholkularitza espezializatua ematea, akziodunen erreleboa eta enpresen jarraipena ziurtatzeko.

Flotaren lehiakortasuna, arrantza kudeatzeko neurriak, ekonomia urdina, deskarbonizazioa

- ✓ Estatu espainiarrari esleitutako arrantza-aukerak flotaren artean banatzea, eta, bereziki, antxoaren eta hegaluzearen kuotaren banaketa.
- ✓ Arrantza-ekoizleen erakundeak eta horien ekoizpen- eta merkaturatze-planak indartzea.
- ✓ Katearen katebegi guztietan arrantza-produktuen trazabilitatea ziurtatzea, batez ere lehenengo salmenta egin ondoren.
- ✓ Etiketatze zuzena eta kontsumitzaileei ahalik eta informazio gehien ematea.
- ✓ Sasoiko arrain freskoa sustatzeko kanpainak bultzatzea.
- ✓ Arrantza-sektorea dibertsifikatzen laguntzea, arrantza-turismoarekin, kultura-ondarearekin eta biodibertsitatea babestearekin lotutako jardueren bidez.
- ✓ Deskarbonizaziorako bidean, itsasontziak berritzeko arrantza-funts espezifiko bat sortzea.

Europako Itsas eta Arrantza Funtza (FEMPA)

Euskadik beti defendatu du FEMPAREN erregionalizazioa, eta horretarako beharrezkoa da Estatuko Administrazio Orokorren (EAO) eta autonomia-erkidegoen artean koordinazio-mekanismoak ezartzea, eta azken horiek elkarrekin koordinatzea, datozen 7 urteetan Europak finantzaturako euro bakar bat ere gal ez dadin. Hainbat arrazoi direla medio, FEMPARI esleitutako zatia exekutatu ezin duten autonomia-erdiidegoek edo EAOk beste autonomia-erkidego edo EAO bati utzi beharko liekete exekutatu ezin izan duten zatia, azken horiek gauzatu ahal izan dezaten.

Ikuskapena eta kontrola

Kontrolari buruzko EBko Erregelamendu berria Estatuko legeriara eramateaz gain, era horretan armadorei zigor bikoitza ezartzea saihestuz (Europako laguntzak eskuratzeko mugatuko zaie), Estatuaren ikuskapen- eta kontrol-araudi berriak Euskadira egindako ikuskapen-transferentzia jaso behar du, Autonomia Estatutuan jasota dagoena eta gaur egun eskualdatzeke dagoena.

Kanpo-dimentsioa eta flota hirugarren herrialdeetako uretan

Urrutiko arrantzetan lan egiten duten enpresei laguntza irmoa ematea, EBri eskatzea hirugarren herrialdeekin arrantza-akordioak berri edo sinatu ditzan, eta arrantzako eskualde-erakundeen gidaritza hartzea, gure flotak arrantza jasangarriaren arloan egiten dituen jardunbide egokiak haiei helarazteko.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

12. GIZARTE POLITIKAK DESBERDINTASUNA MURRIZTEKO ETA ONGIZATE ESTATUA BABESTEKO

Desberdintasuna desagerraraztea gizarte demokratiko ororen erronka nagusietako bat da. Ezin da hazkunde ekonomiko sendo bat lortu gizarte-kohesiorik gabe. Egonkortasun ekonomikoak eta gizarte-babesak binomio banaezina izan behar dute, epe luzean gizarte egituratuko duen hazkunde iraunkorra bermatzeko.

EAJn betidanik uste dugu oparotasun ekonomikoa pentsaezina dela justizia sozialik gabe. Horregatik, politika publikoen alde egiteko konpromiso irmoa dugu, eta, bereziki, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen alde, garapenerako eta gizarte-kohesiorako funtsezko tresna diren heinean.

Politika publikoak hobetu egin daitezke eta hobetu egin behar dira, baina beren helburu nagusia galdu gabe; aukera-berdintasuna bermatzea eta egoera zaurgarriengan dauden pertsonak babestea.

Pobreziari buruzko datuak Euskadin eta Estatuan antzekoak ez badira ere (pobreziaren edo gizarte-bazterketaren arrisku-tasa % 26koa da Estatuan eta % 15,7koa Euskadin), pobreziak, oro har, eta bereziki, haur-pobreziak, gizarte-kohesioaren oinarritzko porrota islatzen du, eta arriskuan jartzen du aukera-berdintasuna, pobrezia pairatzen duten haur horien etorkizuna eta baita gizartearen etorkizuna bera ere.

Euskal Administrazio Publikoek eta beste erakunde batzuek sinatutako Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Itunak diogenarekin bat etorritik, EAJren konpromisoa haur-pobrezia desagerrarazteko lan egitea da. Eta gugan eragina duten erabakiak hartzen dituzten erakunde horietan ere jardungo dugu, betiere euskal eskumen esparrua errespetatuz.

Haurren pobreziak guraso bakarreko familiei eta, batez ere, guraso bakartzat ama duten familiei eragiten die gehien, eta horiei diskriminaziorik gabeko trataera bermatu behar diegu, familia ahulenetako haurrek izan ohi duten aukera-galerari aurre egiteko. EAJren konpromisoa haurtzaroa bermatzeko europar estrategia eta pobreziaren aurkako prebentzio- eta borroka-politikak sinatzea da, ekitate- eta elkartasun-printzipioei jarraiki.

Gazteek aurrean dituzten oztopo nagusiak ordainsari duinak eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dira. Emantzipatzeko adina atzeratzeak arriskuan jartzen du belau-naldien arteko elkartasuna, eta zailtasunak sortzen ditu maila pertsonalean eta sozialean, norberaren bizi-proiektuari eta erronka demografikoari lotuta.

Badakigu etxebizitza eskuratzeko arazo bat dela herritar askorentzat eta, bereziki, gazteentzat.

EAJren ustez, arazo honek konponbide erreal eta egingarriak eskatzen ditu, herritarren beharretara eta baliabideetara egokituta daudenak, haiei konponbide bat eman behar baitiete.

Errealitate horri aurre egiteko behar adina **etxebizitza publiko alokatzea eta sustatzea bultzatzen duten politikak defendatzen ditugu**, eta gizarte-larrialdiko egoerei arreta berezia emango dietenak, Eusko Jaurlaritzak bere eskumen-eremu eskusiboan garatzen diharduen eran.

Alokairu erregimenean eta biztanleko, etxebizitza publiko gehien eskaintzen dituen Autonomia Erkidegoa gara, eta zerrendan bigarren gaude termino absolututan. Baina ezin ditugu onetsi gure autogobernua higatuko duten eta Eusko Legebiltzarraren ahalmenak ahulduko dituen proposamenak, eta azpimarratuko dugu politikak egikaritu beharko dituela eskumenak dituenak, tokian tokiko lurralde- eta ekonomia-testuingurura egokituta, egingarriak eta eraginkorrak izan daitezten.

EAJk hitzematen du, era berean, Loiolako lurren inguruan Donostia hiriarentzat lortu dena bezalako akordioak bultzatzen jarraitzea, orube horretan ehunka etxebizitza eraikiko baitira.

Eta maizterraren eta alokatzailearen arteko oreka aldarrikatuko dugu, parte bien eskubideak bermatze aldera.

Era berean, EAJk uste du ezinbestekoa dela erronka demografikoari ekiteko familia-politikak, erantzunkidetasuna, gurasotasun positiboa, legezko migrazioa, kalitatezko enpleguaren aktibazioa eta ekintzailletza baliatzea.

Era berean, **bizitza profesionala, pertsonala eta familiarra uztartzeko jarduketak bultzatzea defendatzen dugu, eta baita zaintza-lanetan erantzunkidetasuna bultzatzea ere**, bizi-ziklo osoan zehar eta genero-ikuspegiarekin.

Halaber, **osasun-sistamarako sarbide unibertsala** defendatzen dugu, **ekitate eta berdintasun printzipioetan oinarrituta**.

Bestalde, atal honetan ezin dugu ahaztu hirugarren sektoreak eta bere askotariko erakundeek duten garrantzia, administrazio publikoekin batera jardun behar dutenak, modu koordinatu eta osagarrian.

Esparru honetan, honako hauek dira gure proposamenak:

Eskualdatu gabe dauden eskumenen transferentzia: osasun prestakuntza espezializatua, plazen egiaztapena, laneko gaixoaldi eta ezintasunen osasun-kontrola eta kanpo-osasuna.

Horiek gauzatzen diren bitartean, eta osasun arloko langileen gabeziari aurre egiteko premia kontuan hartuta, **BAMEn aldaketak** egitea proposatzen dugu, plazak doitu eta hutsik gera ez daitezten, eta ildo beretik, irakaskuntza-unitateak egiaztatzekeo izapideak erraztea defendatzen dugu.

Sendagaien baimenaz, erregistroaz eta prezioa jartzeaz arduratzen diren organoetan Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak etengabe parte hartzea ere eskatzen dugu.

Ikerketa bultzatzea eta prestazioak eta zerbitzuak hobetzea gaixotasun arraroen eta botika umezurtzen kasuan, baita neuroendekapenezko gaixotasunetan ere, esate baterako, Alzheimer-en gaixotasunean.

Kalamuaren erabilera sendagarria arautzea. Joan den legealdian kalamuaren erabilera terapeutikoa arautzeko aldarrikapenaren buru izan ondoren, Ganberak emandako agindua betetzeko eskatuko dugu, indarrean dagoen araudia egokitu eta eskaera sozial hori gauzatu dadin.

Estatu mailan bultzatutako **gizarte politikak babestea**, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, Euskadin egiten ari garen lanaren ildo beretik.

Haurren diskriminaziorik eza eta berdintasuna bermatzeko lege-aldaketak defendatzen ditugu, euren jatorriko familia mota edozein dela ere (guraso bakarrekoa, guraso bakar amaduna, familia ugaria...).

Haurren sexu-indarkeria eta -esplotazio oro desagerrarazteko lan egingo dugu, eta haurren abusua islatzen duen irudi oro Internetetik ezabatzeke ahalegin berezia egingo dugu.

Haurrek pornografia kontsumitzeko sarbidea gero eta adin gazteagoetan izateak dakarren arriskua azpimarratuko dugu, eta adingabeek Internet eta sare sozialak arduraz erabiltzeko neurriak aztertzea eta ezartzea bultzatuko dugu.

Gizakien salerosketaren aurkako lege integral bat garatzea eskatzen dugu, genero ikuspegia duena eta arazo horren alderdi guztiak kontuan hartuko dituena. Lege integral hori arautzean, salerosketa eta esplotazioa jasaten duten haurren kalteberatasun berezia kontuan hartuko dela bermatzea exijitzen dugu.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

13. ETORKIZUNERAKO IKASKUNTZA EREDUA

Hezkuntza lehentasuna da EAJrentzat, gizarte-kohesioa eta aukera-berdintasuna sustatzeko funtsezko tresna delako. Ildo horretatik, hezkuntzak pentsamendu librea eta anitza, askotariko sinesmenak, giza eskubideak eta aniztasuna errespetatzen dituela bermatu behar du.

Aldaketa eta ziurgabetasun handiko une batean bizi gara, eta hiru erronka nagusiri egin behar diegu aurre: erronka demografiko-soziala, teknologiko-digitala eta erronka energetiko-klimatiko. Hezkuntzak erronka horiei erantzun behar die pertsona libre, konprometitu eta eraldatzaileak garatzen lagunduz.

Horregatik, beharrezkoa da eragina enpresan eta gizartean kokatzea, eta baita helize laukoitzaren lankidetzatza (governua-unibertsitatea-enpresa-gizartea) eta 2030 Agenda ere, unibertsitate eta zientzia politiken erdigunean.

Ildo horretatik, Gernikako Estatutuaren 16. artikuluan jasota dagoen era, Euskadin hezkuntza-eredu propioa lantzeko dugun gaitasunari erantzunez, hezkuntza integralaren aldeko apustua egiten dugu; bizitza osoan gauzatuko den hezkuntza, gure gizarte kohezionatuaren erronkei erantzungo diena, eta bere enpresa-ehuna indartzen jarraitzeko apustua egingo duena.

Izan ere, trebatuta dauden pertsonak behar ditugu, kualifikatuak, ekonomia globalizatu batean berrikuntza, produktibitatea eta lehiakortasuna bultzatzeko gai direnak, baina baita pertsona kritikoak ere, ikuspegi humanista dutenak, balio demokratikoak dituztenak, bizi garen errealitateaz jabetzen direnak eta errealitate horri ikuspegi integraztailetik eta justizia sozialetik heltzeko beharraz jabetzen direnak.

Joan den legegintzaldian, EAJk Hezkuntzaren Lege berria (LOMLOEan) zenbait alderdi giltzarri negoziatu, adostu eta txertatu ditu, aurretiaz euskal hezkuntza-sisteman garatzen ari ginen zenbait alderdi, hain zuzen.

Legegintzaldi berri honetan, hezkuntzaren arloan **indarrean dagoen eskumen-banaketa araubidea errespetatzea** lortzeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du EAJk. Gure hezkuntza-eredu propioa garatzen jarraitu nahi dugu; herritar guztien hezkuntza- eta prestakuntza-aukeren aldeko apustua egiten duen hezkuntza-eredua; eta autonomia erkidego bakoitzak ikasleen irteera-profila bere berezitasunera egokitu ahal izatea errespetatzen duen eredua.

Gure **EBAU eredua errespetatu dadila** aldarrikatzen eta gure irakasleen lan-kultura eta gure inguruneko unibertsitate-komunitatea kontuan hartu dadila eskatzen jarraituko dugu. Proposamen berriak unibertsitate sartzeko probetan hezkuntza arloko eskumenak errespetatu behar dituela aldarrikatzen dugu gure autonomia erkidegotik.

Lanbide-heziketa guztiak bere osotasunean integratzen jarraitu behar direla defendatzen dugu, bakarra izan behar duen eredu bati koherentzia emanez, eredu hori indartuz eta etengabeko hezkuntzaren aldeko apustua eginez, pertsonen lanbide-gaitasunak eskuratzeko eta eguneratzeko ezinbesteko tresna baita. Hala, produkzio-sektoreetan eta lan-bizitzan gertatzen diren aldaketa teknologiko-digitalai aurre egin ahal egingo diete. Horregatik, eta Gernikako Estatutuan ezarrita ditugun

eskumenen barruan, lanbide-trebakuntza eta -espezializazioen euskal esparrua sortzea defendatuko dugu, lanbide heziketa uneoro eguneratuta egongo dela eta gure produkzio-sarearen benetako premiei erantzungo diela bermatzeko.

Lanbide Heziketari **aplikatutako inbokazioa**, ardatz estrategiko gisa jardun dezan etorkizuneko erronkei arrakastaz erantzuteko eta gure ETE eta mikroETEEi produktu eta ekoizpen-prozesu berriak garatzen laguntzeko.

Euskara aldarrikatzea Euskadiko bikaintasunezko unibertsitate- eta zientzia-sistemaren ardatz gisa; eta Euskadi-Akitania-Nafarroa euroeskualdearen esparruan unibertsitateko eta zientzia-arloko euroeskualde-lankidetzaz ezartzeko gaitasun osoa defendatzea, ikasleen erabateko mugikortasuna bermatzeko.

Atzerriko unibertsitate-tituluen homologazioaren transferentzia aldarrikatzea, prozesu hori arindu dadin, profesional trebatuak erakartzeko eta atzerrian ikasketak egin dituzten euskal ikasleen tituluak homologatzeko.

Euskadik unibertsitateen gobernantzaren esparruan alderdi garrantzitsuak erabakitze eta euskal unibertsitateak Europako unibertsitateen proiektuetan integratzeko duen **gaitasun osoa defendatzea**.

Unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzaz bultzatzea eta, batik bat, unibertsitateko titulazio ofizial dualak egituratzeko oztopo guztiak ezabatzea, trebakuntza handiko talentua sortzeko motor gisa.

Espezializazio zientifiko iraunkorra sustatzea, gizartean eta enpresetan eragiteko xedea izango duen bikaintasun-zientziatik abiatuta.

Anbizio handiko inbertsio-esparrua, herrialde aurreratuenen pareko inbertsio-mailetara iristeko.



**EUSKADIREN
AHOTSA.
CON VOZ
PROPIA.**

14. GARRAIO-AZPIEGITURAK GARAPEN JASANGARRIRAKO

Garraio-azpiegiturak funtsezkoak dira pertsoneri eta enpresei zerbitzua emateko, horiek oinarrizkoak baitira bizi-kalitatea hobetzeko, baita lurraldea egituratzeko eta enpresen lehiakortasuna eta garapen iraunkorra hobetzen laguntzeko ere.

EAJk garraio irisgarri, intermodal, dibertsifikatu, malgu eta integratu baten aldeko apustua egiten du, merkataritza zaindu eta hornidura-kateak bermatuko dituena. Era berean, Europako Itun Berdea betetzeko garraioaren deskarbonizaziorantz aurrera egitearen aldeko apustua egiten dugu. Horretarako, beharrezkoa da gaur egun errepidez egiten den salgaien trafikoaren zati bat trenbidera pasatzea.

Euskadi (Irun-Biriatou), Kataluniarekin (Jonquera) batera, Iberiar Penintsula Europako gainerako lurraldeekin lotzen duten bi muga-pasabideetako bat da, eta egunero salgaiak garraiatzen dituzten 7.500 kamioi igarotzen dira bertatik. Hori erronka handia izateaz gain, aukera logistiko garrantzitsua ere bada Euskadirentzat, zeina Atlantikoko ardatzaren zati baita eta potentzial sozioekonomiko handia baitu, babestu eta bultzatu beharrekoa.

Hala ere, garraioaren plangintza eta politika horien zati bat Estatuko eta Europako beste esparru batzuetan erabakitzen da, eta zentzu horretan EAJk tinko defendatzen du lurralde gisa dugun posizio estrategikoa, euskal herritarren eta gure ehun ekonomikoaren defentsan, Euskadi lurralde lehiakorra izan dadin Europan, eta gure herrialdea Europako Atlantikoko korridorearen komunikazioen eta konektibitatearen “funtsezko kate-maila” gisa sendotzearen aldeko apustua egiten du.

EAJk aldarrikatzen du azpiegiturak diseinatzean eta kudeatzean azpiegitura horiek erabiliko dituzten pertsonak eta lurraldea kontuan hartu behar direla, eta, horretarako, euskal herritarrengandik hurbilen dauden euskal administrazioak dira diseinuari, garapenari eta kudeaketari dagokionez eskumen guztiak izan behar dituztenak.

Horregatik guztiagatik, garraio-azpiegitura guztiak (portuak, aireportuak eta trenbideak) Euskadira transferitu behar direla azpimarratuko dugu, Euskadik bere herritarren eta euskal sektore ekonomikoaren beharrei zerbitzu emango dien garraio-sistema integratua izan dezan.

Hori guztia oinarri hartuta, EAJk honako hau proposatzen du:

- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoaren barrutik igarotzen diren aldiriko trenbideen azpiegituren transferentzia egitea, garraio-sistemaren barruan integratzeko eta, hala, kalitatezko garraio-eskaintza eta euskal herritarrei hobeto egokitzen zaiena emateko.
- ✓ Transferentzia egin bitartean, Euskadiko aldirietako lineetako azpiegiturak, zabalera metrikokoak zein zabalera iberiarrekoak, hobetzeko eta egokitzeko egin beharreko inbertsioa azpimarratzea.
- ✓ Abiadura handiko Euskal Y sarea lehenbailehen amaitzea, Gasteizera eta Bilbora lurpean iristeko akordioa lortu ondoren.
- ✓ “European Transport Networks, TEN-T” salgaien korridore atlantikoa bultzatzea.
- ✓ Abiadura handiko trenbide-sare berria Akitaniarekin eta Nafarroarekin eta Gasteizkoa Burgosekin lotzea bultzatzea, Abiadura Handiko Sare Transeuopar Atlantikoaren garapen osoa amaitzeko.

- ✓ Irun Bidea 2030 ekimena bultzatzea, hiri- eta trenbide-osagaiei irtenbide integratua emateko, trenbide-espazio osoa eremu bakar batean integratuz, 2022ko azaroaren 8an Kongresuan Euskal Taldearen ekimenez onartutako ebazpenarekin bat etorriz.
- ✓ Hondarribia, Loiu eta Forondako hiru aireportuen kudeaketaren transferentzia, kudeaketa-eredu koordinatu eta osagarri bat garatzeko, eta Biarritzeko eta Noaingo aireportuekiko lankidetzak sustatzeko.
- ✓ Pasaiaiko portua interes orokorreko portuen zerrendatik kentzea.
- ✓ Intermodalitatea sustatzea; hau da, portuekiko, aireportuekiko eta nodo logistikoekiko lotura sustatzea.
- ✓ Pasaiaiko portuko trenbide-eraginkortasuna hobetzea, eta Lezoko plataforma logistikoa eta bere trenbide-lotura bultzatzea.
- ✓ Pasaiaiko badiaren berroneratze progresiboan aurrerapausoak ematea, erakunde arteko akordioen bidez.
- ✓ Garraiobide guztien irisgarritasun unibertsala bermatzea, desgaitasunen bat duten pertsonen mugikortasun-eskubidea betetzeko, eta, zehazki, geltokien irisgarritasuna eta beharrezko material gurgilduna hobetzeko, mugikortasun murriztua duten pertsonak trenera oztoporik gabe sar daitezten.

edj-pnv.eus

